

DONOSTIAKO UDALAREN LANKIDETZA ETA
GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAKO
IV. PLAN ZUZENDARIA

2021-2024

Lankidetzaz
Cooperación



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

AURKIBIDEA

7	1 ZINEGOTZIAREN AURKEZPENA
9	2 SARRRERA
13	3 GURE ABIAPUNTUAK
15	3.1 Pandemiaren testuinguruan sortutako plana
16	3.2 Garapen agenda
19	3.3 Donostiako Udalaren elkartasun ibilbidea
21	3.4 Hirugarren Planaren ebaluazioa: identifikatutako gako nagusiak
23	4 GEURE ESPARRUA
26	4.1 Helburu orokorra
26	4.2 Zeharkako printzipioak
26	4.2.1 Giza garapen jasangarria
29	4.2.2 Elkartasuna, erantzunkidetasuna eta ikuspegi lokala/globala
29	4.2.3 Koherentzia eta kalitatea
30	4.3 Interes bereziko eremuak
31	4.3.1 Giza eskubideak babestea eta sustatzea
31	4.3.2 Parte hartzea eta ikuspegi lokala/globala indartzea
32	4.3.3 Emakumeen ahalduntzea eta genero ekitatea sustatzea
33	4.3.4 Kontsumo eta ekoizpen kontziente eta arduratsua bultzatzea
33	4.4 Eragileak
37	5 GURE TRESNAK
39	5.1 Jarduteko modalitateak
40	5.2 Tresnak
40	5.2.1 Dirulaguntzen deialdi publikoa
41	5.2.2 Zuzeneko udal lankidetzak
42	5.3 Parte hartzeko guneak
43	5.4 Baliabideak
45	6 HIRU APUSTU ESTRATEGIKO, 14 EKINTZA LERRO
69	7 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

AURKEZPENA

Gizartea eraldatzeko lankidetzaren eta hezkuntzako plan zuzentzaile honek udal honentzat lankidetzaren zer den islatzen du.

Alde batetik, lankidetzaren esparruan egindako ibilbidea definitu eta erakusten du, udal ikuspegitik; bestetik, datozen lau urteetako bidea markatzen du, eta etorkizuneko helburuak eta ekintzak planteatzen.

Baina, batez ere, lankidetzaren egiteko eta ulertzeko modu bat erakusten du: elkarrizketan, adostasunean eta helburu komun batzuen lorpenean oinarritzen dena. Plan hau Lankidetzaren Kontseiluak egindako lanaren ondorioz sortu da, eta hura osatzen duten gizarte eragileen ekarpenak jasotzen ditu.

Horregatik, espero dugu planak elkarrekin sarearen errealitatea islatzea eta haiek ere planarekin identifikatuta ikustea beren burua. Eskertzekoa da, izan ere, haiek egindako lana eta proiektu honetan izan duten inplikazioa.

Donostiako lankidetzak pertsonen begirako eredu baten alde egiten jarraitu behar du. Eredu horrek, ahal den neurrian, Iparraldearen eta Hegoaldearen artean dauden desberdintasunei aurre egin behar die: gosea, ur falta, osasun arazoak, giza eskubideen urraketak eta gerrak, besteak beste.

Eta Donostia bezalako hiri baten eragin ahalmenaz eta tamainaz jabeturik, eredu hori gauzatzeko, jatorrizko lekuetako prozesu komunitarioak indartzen lagunduko duen lankidetzaren batez baliatuko gara, bertiere genero ikuspegia kontuan hartuz eta emakumeen inklusioa bermatuz.

Beste erakunde batzuekin batera egingo dugu lan hori, eginkizun solidario honetan gure aletxoak jartzeko. Izan ere, gaur egun oraindik, ezinbestekoa da eginkizun solidario hori, kritiko izaten jarrai dezagun eta munduan zer gertatzen den ulertzeko gai izan gaitzen.

Nolanahi ere, nazioarteko lankidetzaren ez da soilik Hegoaldeko herrialdeetan -lankidetzaren proiektuen hartzzaile diren herrialdeetan- egiten diren ekintzen multzoa, baizik eta haren barruan sartu behar dugu Iparraldeko herrialdeen kontzientziazioa eta sentsibilizazioa ere -kasu honetan, donostiarrena-, gure bizimoduak eta gure kontsumo ohiturek Hegoaldeko herrialdeetako biztanleei kalterik egin ez diezaien.

Gure betebeharrak beti egon behar du desberdintasunak minimizatzeke eta desagertzeko borrokan, eta, horretarako, arrakala horiek desagertzera zuzendu behar dugu gure politika, eta hartara bideratu gure baliabideak.

Izan ere, bidezkoagoa eta homogeenagoa den mundu bat mundu hobea izango da. Beraz, eskerririk asko, elkartasuna oinarri, mundu hobe bat egiten laguntzeagatik.

Ane Oyarbide Ochoa

Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria



SARRERA

Donostiako Udalaren Lankidetzaren eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako (GEH) IV. Plan Zuzendariaren zirriborroa aurkeztuko dugu. Plan honetan, 2021-2024 aldirako lankidetzarako udal politikaren ildo estrategikoak bildu ditugu. Ziurgabetasun eta krisi sakoneko testuinguru batean sortu da plana, pandemia global bete-betean, eta egoera horrek herrien arteko elkartasuna eta lankidetzaren beharrezkoak eta premiazkoak direla berretsi digu.

Plan hau, gainera, azken urteetan egindako lanetik dator eta, hobekuntzak egin eta apustu estrategikoen zati bat eguneratu dugun arren, giza garapen jasangarria (GGJ) oinarritutako ikuspegi baten aldeko apustuarekin jarraitzen du; besteak beste, giza eskubideak, genero ekitate, parte-hartzea, eta kontsumo kontziente eta arduratsuen ekintza esparruak lehenetsiz; Donostiako elkartasunaren sektorearekin etengabe hitz eginez; eta politiken koherentziaren ardatzean eta ebaluazio eta ikaskuntza etengabeetan sakontzearen aldeko apustua eginez.

Dokumentu hau honela egituratuta dago: Lehenengo atalean, labur-labur, gure abiapuntuak aipatuko ditugu, eta testuingurua, lankidetzaren politikak eta udal lankidetzaren ibilbideko hainbat mugari aztertuko ditugu, azaletik bada ere. Hurrengo atalean esparrua dator eta, bertan, helburu orokorra, zeharkako printzipioak, interes arloak eta politika horretarako erreferente diren eragileak zehaztuko ditugu. Hurrengo atalean, politika hori garatzeko ditugun tresnak aipatuko ditugu eta, horren ondoren, hurrengo lau urteetarako apustu estrategikoak eta ekintza lerroak deskribatu. Dokumentuaren amaieran, jarraipenerako eta ebaluaziorako proposamena aipatzen da.

Plan honek datozen lau urteetarako ibilbide orri bat izan nahi du. Dokumentu zehatza egin nahi izan dugu, gure konpromisoak jasotzeko eta aurrera norantz eta nola egin behar dugun argi izateko bezain zehatza, baina malgutasuneko eta irekitasuneko marjina zabala txertatzen saiatu gara. Gaur egungo ziurgabetasun handiko egoera honetan, gure jarduna premia eta erronka berrietara egokitzeko gai izan behar dugu, esan bezala, apustu estrategikoak eta metatutako historikoa galdu gabe. Horrela, bada, urteko plan operatiboak taxutzea eta sektorearekin etengabe kontrastatzea bereziki garrantzitsuak izango dira Plan hau garatzeko.



GURE ABIAPUNTUAK

3.1 Pandemiaren testuinguruan sortutako plana

Ezin dugu ahaztu Plan hau mundu osoko pandemia baten testuinguruan sortu dela. Urtebete baino gehiago daramagu jada azken 100 urteetako shock ekonomiko, sozial eta sanitario latzena dela dioten egoera hau bizitzen, eta esan dezakegu oraindik ez gara gai krisialdi honen benetako inpaktu sakon guztiak neurtzeko. 2 milioi pertsona baino gehiagoren heriotzaz hitz egin dezakegu, gaixoez, langabezia, hezkuntzaren geldialdiaz, konfinamenduak izan dituen ondorioez etxeetan indarkeria egoerak areagotzeari dagokionez, beren lurraldeetan "harrapatuta" dauden pertsonen eragin dienaz... Ikus dezakegu birusak guztiongan berdin eragiten zuelako ideiarean aurrean, zera frogatuta geratu dela, birusak klase soziala eta generoa dituela, pobrezia handieneko tokietan jotzen duela, desparekotasunak areagotzen dituela... Eta lehen olatuan ikusten hasi ziren erantzun solidarioen aurrean, nazioarteko komunitate txertoak lortzeko lehiaketa batean murgilduta dagoela, herrialde txiroenak atzean utzita. 2021eko urtarrilean, OMEko zuzendariak ohartarazi zuen ni lehenengo ikuspegi horrek arriskuan uzten dituela munduko txiroenak eta ahulenak, pandemia luzatu baino ez dutela egiten ekintzak horiek, eta "porrot moral katastrofikotzat" jo zuenari aurre egin behar diogula gizateria gisa¹.

Nolanahi ere, pandemian gertatzen ari dena, baita pandemia bera ere, ez dira ezerezetik sortzen. Krisialdian dagoen sistema baten azken adierazpena da. Alderdi anitzeko krisialdi baten, klimatikoa, soziala, politikoa... Desorekan oinarritzen den eta desparekotasuna eragiten duen sistema baten krisialdia. Sistema horre-

tan, biztanleriaren % 1 aberatsenak 6.900 milioi pertsonaren aberastasunaren bikoitza baino gehiago du; 258 milioi haur eskolatu gabe daude, bostetik bat; egunero 10.000 pertsona hiltzen dira arreta medikoa ordaindu ezin dutelako; 18 urtetik beherako 500.000 neska inguru sexu trafikoa biktima dira urtero; Europar Batasunean, emakumeen % 55ek sexu jazarpena jasan dute gutxienez behin, 15 urte bete zituztenetik; emakumeek gizonek baino 2,5 aldiz gehiago egiten dute ordaindu gabeko etxeko lana eta zaintza lana; Espainiako estatuan, 2003-2020 aldian, gutxienez 1.074 emakume erail zituzten beren bikoteek edo bikotekide ohiek; 2019an, giza eskubideak defendatzen zituzten 281 pertsona, gutxienez, erail zituzten, eta 2020rako antzeko zifra aurreikusten da²... Kopuruak ematen jarraitu ahal izango genuke, baina inoiz ez lirateke nahikoak izango. Sistema horren inpaktuen zati bat baino ez dira, munduaren alde batek nolabaiteko ongizatea izateko beste alde baten ustiapena behar baitu.

Gero eta gehiago dira norabidea aldatzeko premiaz ohartarazten duten ahotsak. Planetaren muga fisikoak kontuan hartzen ez dituen eta mundu osoan inpaktu klimatiko eta ekologiko larriak eragiten ari den eredu bat eraldatzeko premia. Aberatsenen eta pobreen artean gero eta arrakala handiagoa sortzen duen eredu. Milioika emakumeren lan ikusezin eta prekarioan oinarritzen den eredu, baita indarkerian ere, kontrol mekanismotzat. Zaintza lanak, adibidez, funtsezkoak izan dira pandemia honean, baina oraindik ere emakumeen esku daude, eta emakume asko migratuta eta arrazializatuta daude, esklabotzaren pareko egoerak bizi dituztenez, esaterako, etxeko enpleguaren kasuan. Eredu horretan, gero eta biztanle gehiagok ihes egin behar dute beren lurraldeetatik, gatazken-gatik, gerrengatik, erazketak proiektuengatik, indarkeriengatik... karabanetan, hala nola Erdialdeko Amerika eta Mexiko zeharkatu dituzten karabanetan; kaiukoetan... pertsona horiei beren oinarritzeko eskubideak ukatzen dizkiete iparralde globaleko herrialdeek. Adibide bat: Lesboseko kanpamenduen egoera ankerra. Eredu horretan, muturreko jarrerak eta gorrotoaren diskurtsoak gero eta gehiago areagotzen dira.

1 [Mapa interaktiboa](#): herrialde bakoitzean zenbat dosi eman diren adierazten du.

2 Datuak hainbat iturritatik atera ditugu: [Intermón Oxfam](#), [Unicef](#), [Ministerio de Igualdad](#), [Amnistía Internacional](#)...

Horren aurrean, ziurgabetasunez eta mundu osorako erronkaz betetako etorkizun baten aurrean, are beharrezkoagoa da, jasangarritasun ekologikoko irizpideei jarraikiz, gutxiago kontsumitzera eta produzitzera bideratzen gaituzten alternatibak hartu eta horien alde egitea. Bizitza, bizitza guztiak, erdigunean jartzeko proposamen feministarekin bat egitera bideratzen gaituztenak, aniztasuna errespetatuz eta inor atzean utzi gabe. Beste modu batera elikatze- ra bideratzen gaituztenak, elikadura subiranotasunetik proposatzen digutenaren ildoarekin bat, lurra zainduz, eredu agroekologikoa, lokala, lurraldeen arteko bidezko truke harremanak sortuz. Ekonomia ulertzeko beste modu batzuk ezartzera bideratzen gaituztenak, esplotazioaz eta onura kapitalistaz harago, hala nola ekonomia sozial eta solidarioa, ekonomia zirkularra, merkaturatze zirkuitu laburrak, bidezko merkataritza... Mundu guztian giza eskubideen urraketa sistematikoak salatzen antolatzen jarraitze- ra bideratzen gaituzten alternatibak. Beste elkartasun batzuk ehuntzera bideratzen gaituztenak, hala nola migratutako pertsonak hartze- ko herritarren esperientziak edo pandemiaren garaian abian jarri diren auzo sareak. Publikoa denaren defentsarako erakunde publikoak erai- kitzera bideratzen gaituztenak, herritarrei ire- kiak eta guztion ongia, pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzen dituztenak.

Gaur egun, nazioarteko elkartasuna inoiz baino garrantzitsuagoa da. "Bertakoak lehenik" defendatzen duten diskurtsoak ezar daitezkeen une honetan, gure ustez beharrezkoa da bate- rako lan globala, babes indartzea, herrien ar- teko, erakunde arteko eta pertsonen arteko aliantza. Desberdinen arteko zubiak egitea eta Donostian herritartasun kritikoa indartzea, ai- patutako premiazko eta beharrezko eraldake- tetan lan egin eta inplikaturako dena. Gure apal- tasunetik, Plan hau guztiontzako bizigarria den planeta bat defendatzeko geure hondar alea izatea nahi dugu.

3.2 Garapen agenda

Atal honetan, garapen agenda honen hiru mugarri aipatu nahi ditugu. Lehenik eta behin, eta genero ekitateari dagokionez, Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioaren (CEDAW) eta Emakumeen Mun- du Konferentziaren (Beijing, 1995) gidalerroen garrantzia berreskuratuz dugu. Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, Istanbulgo ltu- na aipatuko dugu.

2015ean, 20 urte bete ziren [Beijingo Adiera- zpena eta Ekintza Plataforma](#) onartu zirenetik. Nazio Batuen ebazpen historiko horretan, 189 gobernuak genero berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduntzea lortzeko konpromisoa hartu zuten. Plataformak konpromiso zehatzak definitu zituen berezi kezkarritzat jotzen di- ren hamabi eremutan, hala nola ordezkartza politikoa, ekonomia, hezkuntza, emakumeen aurkako indarkeria, pobrezia, komunikabideak, osasuna edo gatazka armatuak. Eta emakumeak ahalduntzeko berariazko ekintzen estrategia bikoitza ezarri zen, egiten diren politika eta ekintza guztietan genero ikuspegia zeharkako bihurtuta (mainstreaming). Hala ere, Beijingo Ekintza Plataformaren 20 urteetako azterketak datu kezkarriak eman zituen atzerapausoei eta egiteke zeuden erronkei buruz. Nazio Batuen idazkari nagusiaren Ebaluazio Txostenean adie- razten denez, azken urteetan aurrerapausoak izan diren arren, "aurrerabidea, oro har, geldoa izan da, eta zenbait testuingurutan geldialdiak eta atzerapenak ere izan dira. Generoen arteko berdintasunaren aldeko aldaketa ez da behar bezain sakona izan, ezta atzerazina ere."³Beraz, erreferentzia esparru izaten jarraitzen du, eta haren garapenarekiko konpromisoa hartzen jar- raitu behar dugu, lankidetzak politikak bultza- tzen diren eremu guztietatik. Plan honek kon- promiso zehatzak zehazten ditu zentzu horre- tan.

3 Osorik aurki daiteke [hemen](#).

Aipatzekoa da, halaber, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Ituna, Istanbulgo Hitzarmena esaten zaiona, Espainiak 2011n berretsia eta 2014an indarrean jarria. Garrantzitsua da tresna hori aipatzea, emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren arloan European loteslea den lehena delako, eta giza eskubideen urraketa larri horri aurre egiteko irismen handieneko nazioarteko tratatua delako. Itunak zero tolerantzia ezartzen du emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketatzat eta diskriminazio modutzat hartzen du, eta estatuak eta, beraz, administrazio publikoak jotzen ditu erantzuletzat, behar bezala erantzuten ez badute. Hertsatuki eskatzen die indarkeria mota horiek desagerrarazteko era guztietako neurri koordinatuak martxan jartzeko⁴.

Bigarrenik, nahitaez aipatu behar dugu 2030 Agenda edo Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) Agenda⁵, Milurteko Agendaren ondorengoa, 2015eko irailean Nazio Batuen Batzar Nagusian onartu zena. Garapen Jasangarrirako 17 helburu dira, guztira, lotutako 169 xederekin, eta 2030. urtea ezartzen da helburu horiek betetzeko denbora esparrutzat.

Agenda horren helburu dira, besteak beste, pobrezia amaitzea, desparekotasunaren eta bidegabekeriaren aurka borrokatzea eta klima aldaketari aurre egitea, munduko edozein lekutan pertsona guztien giza eskubideak betetzen direla ziurtatuta. GJH Garapen Jasangarrirako Helburuak beren aurreko Milurteko Garapen Helburuetatik (MGH) haratago doazela esan dezakegu, pobrezia funtsezko kausei eta pertsona guztien garapenerako behar unibertsalari heltzen zaien aldetik. Jauzi handia egin da ingurumenaren arloko jasangarritasunaren dimentsioak gehitzeko, eta agenda hori, batez ere, bokazio unibertsal argiarekin formulatu da, "pobretutzat" jotako herrialdeetarako eta herrialde horietako tokiko, eskualdeko eta nazioko administrazio eta eragileetarako ez ezik, herrialde guztietarako ere gida izanik.

Ez dugu agendaren azterketa zehatza egiteko asmorik, baina egokitzat jotzen dugu 2030 Agenda horren arriskuak eta aukerak zeintzuk diren adieraztea, baita hemen aurkezten ari garen politikarekin izan dezakeen lotura ere⁶. Arriskuekin hasiko gara; itxuraz kontraesankorrrak diren alderdiei buruzko proposamenen edukiontzi izan daiteke Agenda, hala nola hazkunde ekonomikoa eta planetaren jasangarritasuna areagotzearen alde egitea. Bestalde, gizarte zibilak azpimarratu du GJH askok ez dutela jasotzen objektiboki egiazta daitekeen eperik, helbururik edo adierazlerik, eta, beraz, ez dakartela benetako konpromisorik, asmo onetatik haratago.

Aukeren atalean, Agenda horretatik Plan hau garatzeko interesgarriak diren hiru gai, guxtienez, identifikatu ditugu. Lehenik eta behin, helburuen edukiak berak duen potentzialtasuna eta jasangarritasunaren ideien presentzia eta, beraz, GGJ Giza Garapen Jasangarriaren ikuspegiarekiko lotura zuzena. Agenda hori pobrezia ikuspegi murriztaileenetatik urruntzen da, eta garapenaren ikuspegi konplexuago eta integralago baterantz egiten du aurrera.

Bigarrenik, proposatutako garapen ereduari dagokionez arestian aipatutako inkoherentzia horiek aukera bihurtu daitezke. Adierazleak eta helburu orokorrak izanez gero, horiek modu kritikoa berrikusi, interpretatu eta elikatu daitezke, eta GGJren proposamen eraldatzaileago batera bideratu, konpromiso argiagoak hartuta.

Hirugarrenik, agenda hori erantzunkidetasunaren ideian oinarritzen dela berreskuratu dugu. Agendaren arabera, zera ulertu behar da, garapen desegokia ez dela soilik Hegoaldeko herrialdeen arazo; mundua konplexua eta interdependentea dela, eta, gaur egun, Iparralde Globaleko herrialdeen erroka ere badela beren egitekoa birpentsatzea, betiere gizartearen, politikaren eta ingurumenaren aldetik jasangarria den garapen eredu horri dagokionez, planetan bizi diren pertsona guztientzat eta etorkizuneko belaunaldietarako. Politika barnekoenak, eremu eta maila guztietan, beste herrialde batzuetako errealitatearekin zenbateraino dauden lotu-

4 Espainian Istanbulgo Ituna betetzearen inguruko ebaluaziori buruzko informazio gehiago, [hemen](#).

5 Kontsultatu Agenda osorik [hemen](#).

6 Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu ditugun hainbat azterlan dituzu [hemen](#) eta [hemen](#).

ta eta errealtate horretan zenbateko eragina duten ulertzea eta neurtzea. Esparru lokaletan eta globaletan dagoen lotura sakona ulertzeko premia da. Eta egiaztatu beharra dago lankidetzaren politikak ezin izango dutela, beren kabuz, aurrez aurre dugun dimentsio anitzeko krisia konpondu. Beraz, 2030 Agendak esparru bat ekar dezake, administrazioek GGJren ikuspegia politika guztien erdigunean jartzeko egin behar dugun ahalegina lagundu eta bermatzeko, eta ez soilik lankidetzari lotutako politiketan.

Azkenik, Agenda hori tokian-tokian egokitzea konplexua da oraindik. Gure ustez, lankidetzaren plan espezifiko honek GJH hauei erantzuten die, planteatutako ardatz estrategikoen bitartez:

Gainera, Garapenerako Politiken Koherentziarako Euskal Erreferentzia Esparru bat dugu (2016ko apirilaren 5ean onartu zen)⁷, eta gara-

penerako politiken koherentzia honela ulertzen du: "giza garapeneraren ikuspegia eta jasagarritasuna maila guztietako politika publikoen diseinuan, abian jartzean eta ebaluazioan xertatzea, bai eta horien arteko koordinazioa eta osagarritasuna ere"; era berean, gobernuaren jardunerako oinarritzko erreferentzia izan behar duela adierazten du, "bai barne garapenerako estrategiei dagokionez, bai kanpo ekintzari edo bien arteko harremanari dagokionez". Konpromiso politiko hori laneko agenda zehatz eta operatiboetan gauzatu behar da, eta emaitzak bistakoak izan behar dira. (...)

Idea horiek dira bereziki garrantzitsuak gure planerako, non apustu esplizitua egiten baita GGJren ikuspegia indartzeko eta administrazioaren beraren barruan politiken koherentzia sakontzeko. 2030 Agenda ez da berez helburu bat, baizik eta egin nahi dugun eta zailtasunez beterik dagoen bide horretan lagundu diezagukeen tresna bat.

7 Ikus Eusko Jaurlaritzaren politiken koherentziarako Euskal Erreferentzia Esparrua, [hemen](#).

1. GJH
POBREZIA MOTA GUZTIAK DESAGERTZEA MUNDU OSOAN
4. GJH
GUZTIONTZAKO KALITATEZKO HEZKUNTZA INKLUSIBOA NAHIZ BIDEZKOA BERMATZEA ETA ETENGABEKO IKASKUNTZARAKO AUKERAK BULTZATZEA 4.7 helmuga. Giza garapen jasangarria sustatzeko ezagutza teorikoak eta praktikokoak.
5. GJH
GENERO BERDINTASUNA LORTZEA ETA EMAKUME NAHIZ NESKA GUZTIAK AHALDUNTZEA
10. GJH
HERRIALDE BAKOITZAREN BARNEKO ETA HERRIALDEEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
12. GJH
KONTSUMO ETA EKOIZPEN MODALITATE JASANGARRIAK BERMATZEA
16. GJH
GARAPEN JASANGARRIRAKO GIZARTE BAKETSU ETA INKLUSIBOAK SUSTATZEA, GUZTIOI JUSTIZIARAKO SARBIDEA ERRAZTEA ETA EUREN JARDUERAK ETA KONTUAK AZALTZEN DITUZTEN ERAKUNDE ERAGINKORRAK ETA INKLUSIBOAK SORTZEA MAILA GUZTIAN 16.6 helmuga. Erakunde eraginkor, arduratsu eta gardenak lortzea maila guztietan. 16.7 helmuga. Beharrei erantzuneko dieten erabaki inklusiboak, partizipatiboak eta adierazgarriak hartzen direla bermatzea maila guztietan.
17. GJH
GARAPEN JASANGARRIRAKO MUNDU ALIANTZA IMPLEMENTATZEKO ETA BIZIBERRITZEKO TRESNAK SENDOTZEA 17.14 helmuga. Garapen jasangarrirako arauen koherentzia bultzatzea.

Gainera, Garapenerako Politiken Koheren-
tziarako Euskal Erreferentzia Esparru bat dugu
(2016ko apirilaren 5ean onartu zen)¹, eta garape-
nerako politiken koherentzia honela ulertzen du:
"giza garapenaren ikuspegia eta jasangarritasuna
maila guztietako politika publikoen diseinuan,
abian jartzean eta ebaluazioan txertatzea, bai eta
horien arteko koordinazioa eta osagarritasuna
ere"; era berean, gobernuaren jardunerako oina-
rriko erreferentzia izan behar duela adierazten
du, "bai barne garapenerako estrategiei dagokie-
nez, bai kanpo ekintzari edo bien arteko harrema-
nari dagokionez". Konpromiso politiko hori laneko
agenda zehatz eta operatiboetan gauzatu behar
da, eta emaitzak bistakoak izan behar dira. (...)

Ideia horiek dira bereziki garrantzitsuak gure
planerako, non apustu esplizitua egiten baita
GGJren ikuspegia indartzeko eta administra-
zioaren beraren barruan politiken koherentzian
sakontzeko. 2030 Agenda ez da berez helburu
bat, baizik eta egin nahi dugun eta zailtasunez
beterik dagoen bide horretan lagundu diez-
gukeen tresna bat.

3.3 Donostiako Udalaren elkartasun ibilbidea

Donostiako Udalak urteak daramatza Donos-
tiako herriaren elkartasuna politika publiko bi-
hurtzen, lankidetzako ekimenak bultzatuz eta
gizartea eraldatzeko hezkuntzaren bitartez.
1986an, Tindoufeko errefuxiatuen kanpamen-
duetatik etorritako lehen 50 haur sahararrak
hartu zituen Donostiak, eta 1988an Bojadorreko
Dairarekin senidetzea sinatu zuten; gaur arte
ere bizirik dirau Donostiako eta Saharako he-
rrien elkartasun harreman bereziak. Ildo beretik,
1997an lankidetzak hitzarmena sinatu zen Bos-
niako Goražde hiriarekin.

1994an, Lankidetzak eta Tolerantzia Bulegoa
eratu zen formalki (gerora Lankidetzak deitu
zaio), udaleko lankidetzak politikaz arduratzeko
eta, harrezkero, GGKEei eta lankidetzak erakun-
deei laguntzen die, dirulaguntzen urteroko
deialdiaren bitartez eta hiriko hainbat ekimeni
babesa emanda.

Udal hau, bestalde, Euskal Fondon Lankidetzak-
rako Tokiko Euskal Erakundearen Elkarteko kide da
elkartea 1996an hasi zenetik, eta bertako zuzen-
daritza batzordeko kide da.

2003an, Atalak geldialdi txiki bat egin eta
atzera begirako hausnarketa bat egiteko be-
harra planteatu zuen, bere lanaren etorkizuna
bideratzeko, Iparralde-Hegoalde elkartasunaren
eremuan jarraitu beharreko ildoak ezartzeko eta
erabiltzen ari ziren tresnen baliozkotasuna be-
rrikusteko. Horregatik, udalak aurreko 6 urtee-
tan lankidetzan egindako ibilbidea aztertu zen.

Azterketa horretatik abiatuta, partaidetzak
prozesu luze bat abiarazi zen erakunde guztie-
kin, Nondik Nora (2003–2005), udalaren lanki-
detzak politika hobetzeko lehentasunezko lan
ildoak elkarrekin ezartzearen. Horrela, bada,
lehentasuntzat ezarri zen Lankidetzako Aholku
Kontseilua abian jartzea, eta udal politikaren

ildo estrategikoak Plan Zuzentzaile baten bitartez ezartzea.

Lankidetzako Aholku Kontseiluaren aurrekariak 1996. urtekoak dira, baina 2008an berriro aktibatu eta martxan jarri zen, erakunde guztiekin kontratatutako eta adostutako erregelamendu berri batekin; gaur egun martxan dago oraindik ere. 2012an, Kontseilua berriro zen, erregelamendua udaleko gainerako kontseilu sektorialen araudiekin bateratzeko.

Lankidetzarako udal politikaren ildo estrategikoak hiru planetan definitu eta zehaztu dira, hurrenez hurren: Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako I. Plana 2008-2011; Giza Garapen Iraunkorrerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako 2012-2015 aldirako II. Plana; eta Lankidetzeta eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako III. Plan zuzendaria 2017-2019.

Nabarmentzeko moduko beste mugarri bat izan zen 2010ean Udalaren Osoko Bilkuran Pobreziaren aurkako Ituna onestea; horren bitartez, genero ekitatea duen giza garapen jasangarriak nazioarteko komunitatearen lehentasunezko helburu izan behar duela aitortzen da, eta pobreziaren eta desperekotasunaren aurkako borroka erantzukizun kolektiboa dela. Testuinguru horretan, zenbait erabaki hartu ziren, hala nola lankidetzarako udal politiken kalitatean sakontzea, eta sentsibilizazioa eta GEH sustatzea, gizartea eraldatzeko tresna baliagarriak diren aldetik. Konpromiso hori termino kuantitatibotan zehaztu zen, eta aurrekontuaren % 0,7ra iristea zen helburua.

Azkenik, ibilbide honetan nabarmendu nahi dugu 2017an Donostiako Udalak bat egin zuela (H)abian 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiarekin, eta bere egin zituela estrategia horren ondoriozko zortzi konpromisoak.⁸

Urteak joan, urteak etorri, Donostiako Udalak bultzatutako lankidetzeta politika garapen agendarekin lotutako eztabaida eta proposamenekin bat etorri izan dela esan dezakegu, eta horiek udal lankidetzako eredu batera hurbildu direla,

hiriko elkartasun sektorearekin lotura estuan. Partaidetzeta oso handiko politika da, eta GGKEen ekarpenak jaso nahi izan dira, batez ere, haien presentziarekin, Lankidetzeta Kontseiluaren eta beste eragile garrantzitsu batzuen bitartez. Zeharkako lankidetzaren aldeko apustu argia egin da, zuzeneko lankidetzeta funtsak hiru ekintza ardatzetara, batik bat, bideratuz: lehen aipatu dugunez, urteetako elkartasun harremana duten herriei laguntzea (Sahara); artikulazioaren aldeko apustua egitea, Euskal Fondoan parte hartuta eta GGKEen Koordinakundeari lagunduta; eta Donostiako herritartasun kritiko eta erantzunkidea bultzatzeko ahalegina. Giza eskubideen, genero ekitatearen, parte-hartzea indartzearen eta kontsumo kontziente eta arduratsuaren aldeko apustuak estrategikoak izan dira udal lankidetzaren eredurako.

⁸ Konpromiso horiei buruzko informazio gehiago [hemen](#).

3.4

Hirugarren Planaren ebaluazioa: identifikatutako gako nagusiak

Aurreko lankidetzaren planean, kanpoko ebaluazio prozesu bat egin zen, eta prozesu horretan aktiboki parte hartu zuten sektoreko erakundeek. Ebaluazio horren ondorioz, Plan hau osatzeko baliagarriak izan diren gakoak identifikatu ziren.

Zehazkiago, eta lehenik eta behin, Planaren tresnarekin adostasun handia zegoela eta zehaztutako esparru, helburu, apustu estrategiko eta tresnekin bat-etortze handia zegoela nabarmendu zen. Ildo horretan, orain arte egindako lanari jarraipena eman eta Plan hau zehazteko garaian sektorearen parte-hartzea izateko interesean sakondu zen.

Dokumentuari berari dagokionez, helburu eta ekintzen garapen mailan hobekuntzak egin behar zirela identifikatu zen, batez ere Planaren mailen arteko zehaztasun mailari eta loturari dagokionez.

III. Planaren betetze mailari dagokionez, agerian geratu zen aurreikusitako neurrien gauzatzeko maila handia izan zela, baita hiru mailatan zailtasunak izan zirela ere: politiken koherentziaren ardatzarekin zerikusia zuten eta beste Atal batzuekin lan egitea eskatzen zuten neurrien ezarpenean; ekintza berritzaileen eta lehen aldiz bultzatzen zirenetan; eta ebaluazio prozesuei dagozkienetan.

Halaber, ebaluazio prozesu horretan sortu ziren proposamen zehatzagoei dagokionez, honako hauek nabarmendu behar dira: Lehenik, politiken koherentziaren aldeko apustu argia eta irmoa egitea, 0,7a lortzeko bidean aurrera egitearren eta ebaluazioa hobetzearren. Tresnei dagokionez, urteko plangintzak eta kudeaketako eta jarraipeneko sistemak indartzeko apustua ere egin zen. Eta, azkenik, eragileei dagokionez, Lankidetzaren Kontseilua eta horrek udal politikean eragiteko duen gaitasuna indartzen jarraitzeko proposamena; udalak beste administrazio

eta eragile batzuekin duen elkarriketa hobetzea; eta Lankidetzaren Zerbitzua indartzen jarraitzea; beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide tekniko guztiek.

Ekarpen horiek guztiak oso baliotsuak izan dira Plan hau idazteko. Lan saio guztiak egituratzeko oinarria izan dira, eta funtsezko intsumoa udalaren lankidetzako politikari jarraipena emango dion eta,aldi berean, helburu eta erronka berrien definizioan aurrera egingo duen Plan bat osatzen saiatzeko.





GURE ESPARRUA

Planaren atal honetan, Donostiako Udalak bultzatutako lankidetzaren politikaren eta GEHren oinarri nagusiak jaso ditugu. Orain arte egindako lanaren eta etorkizunean egiten jarraitu nahi denaren bereizgarriak honako hauek direla esan dezakegu.

Aurreko planean, printzipioak, zeharkako le-
rroak eta interes bereziko eremuak bereizten ziren. Bai azken bi planen ebaluazio prozesuetan, bai dokumentu hau prestatzeko ondorengo lanean, eduki horiek egokitzeko eta sinplifikatzeko beharrez bideratu gaituzte, betiere lotura eta koherentzia handiagoa emate aldera.

Horrela, bada, Plan honetarako, printzipioen eta zeharkako ildoen puntua bateratu dugu, eta interes bereziko eremuena indartu dugu. Gure ustez, bi puntu nagusi horiek ikuspegia azal-

tzeko aukera ematen dute, funtsezko bi elementu kontuan hartuta: gure ustez zer ideiak edo apustuk izan behar duten zeharkako lankidetzaren politika osoan, gure ekintza osoan; eta zer eremu diren estrategikoak ekintza hori garatzeko, non eta nola zentratu nahi dugun lan hau inpaktua eta eraldaketa sortzeko dugun gaitasuna handitzeko.

Azkenik, Plan honetarako estrategikotzat jotzen diren eragileak aipatuko ditugu.

Horrela, bada, puntu honetan honako hauek zehaztuko ditugu:

- 1 Lankidetzaren politika honen HELBURU OROKORRA zein den.
- 2 Zeintzuk diren politika osoa zeharkatzen duten PRINTZIBIOAK.
- 3 Zeintzuk diren datoen lau urteetan gure ahaleginak bideratu nahiko genituzkeen INTERES BEREZIKO EREMUAK.
- 4 Zein jotzen dugun LANKIDETZAKO ERAGILETZAT.

4.1 Helburu orokorra

Plan honen eta Donostiako Udalak bultzatutako lankidetzaren politikaren xedea pobrezia eta despaketotasuna sortzen dituzten egiturazko arrazoiak desagerrarazten ez ezik, gizarte eraldaketako prozesuak sustatzen ere laguntzea da, betiere giza garapen jasangarriaren, giza eskubideen, genero ekitatearen eta gizarte eta ingurumen jasangarritasunaren esparrutik abiatuta, eta herrialde pobretuetan zein gure hurbilagoko errealitatean ekintzak eginez, mundu ekitatiboago, bidezkoago eta bizigarriago batean aurrera egin ahal izateko.

4.2 Zeharkako printzipioak

Printzipio horiek gure nortasunaren ikur dira, eta politikan dugun jarrera lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren gure ikuspegia adierazten dituzte. Horretaz gain, Donostiako Udalean lankidetzaren arloko praktikak, estrategiak, ekintza lerroak eta erabakiak zehazteko begirada dira. Beste modu batera esatearren, udal politika honen garapenean egin nahi dugun bidea bideratu behar duten zeharkako ikuspegiak lirarteke. Eta, beraz, politika hori garatzeko erabiltzen ditugun tresna guztietan txertatuta egon behar dute.



4.2.1 Giza garapen jasangarria

Esan dezakegu Giza Garapen Jasangarria (GGJ) ikuspegi bat dela, garapen eredu hegemonikoa eta hori nola neurtzen ari den zalantzan jartzen duen ikuspegia, eta etengabe eraikitzen ari den proposamen alternatibo bat planteatzen duela. Alde batetik, garapena mugarik gabeko aurrerapen ekonomiko kapitalistatza hartzen duen ideia zalantzan jartzen da, hau da, hazkunde ekonomikoak automatikoki pertsonen ongizatea dakarrelako ideia. Hori horrela, zalantzan jartzen du garapentzat jotzen dugunaren ideia bera, hazkundeari, merkatuei, BPGaren datuei eta herrialde guztiek egin beharreko bide bakarrari lotuta. Horrela, lehenik eta behin, garapena dimentsio anitzeko zerbaitekin delatzen ulertzeko beharra dakar.

Bestetik, egungo eredu zalantzan jartzen da, ez soilik despaketotasuna eta pobrezia sortzen dituelako, baizik eta ez delako jasangarria ekologiar dagokionez. Sistema horren produktio eta erauzketako dinamiken ondorioz, gaur egungo egoerara iritsi gara, alegia, krisi ekologikoa izatera eta planetaren muga fisikoak gero eta gehiago gaingaitzen. Eta eredu hori, berez, ez da jasangarria; gainerako herrialdeek ezin izango zuketuen errepikatu, eta, gainera, etorkizuneko belaunaldien jasangarritasuna eta ongizatea arriskuan jartzen ditu. Horrela, bada, bigarrenik, jasangarritasunaren ideien ekarpena egiten du, zentzu zabalean.

PNUD Nazio Batuen Garapenerako Programak honela definitzen du GGJ: "Pertsonak bizitza luze, osasungarri eta sortzailea izateko dituzten gaitasun eta askatasunak zabaltea; balioetsutza jotzen dituzten helburuak betetzea eta modu aktiboan parte hartzea garapenari forma ematen, modu ekitatibo eta jasangarrian, planeta partekatu batean. Pertsonak, norbanako gisa eta kolektiboki, giza garapenaren onuradun eta eragile motibatzaile dira, aldi berean"⁹.


PNUDek berak dio giza garapena hiru faktorek osatzen dutela: "Ongizatea, jendearen benetako

⁹ PNUD (2010: 24): Giza Garapena 2010 txostena: Nazioen benetako aberastasuna: Giza garapenerako bideak; [hemen dago eskuragarri](#).

askatasunak zabaltzea, aurrera egin dezaten; Ahalduntzea eta agentzia: pertsonen eta taldeen ekintza ahalbidetzea, emaitza baloragarriak lortzeko; Justizia: ekitatea zabaltzea, emaitzei eustea denborak aurrera egin ahala eta giza eskubideak eta gizarteak planteatutako beste helburu batzuk errespetatzea”¹⁰.

Plan honetarako, gure ustez, GGJren ikuspegiak begirada zabaldu eta konplexuago bihurtzen du, eta garapena hainbat arlotan gertatzen den prozesutat ulertzera bideratzen gaitu: gizartearen, politikan, ekonomian, kulturean... Prozesu horretan, pertsona guztien gaitasunak maila indibidualen eta kolektiboan indartzea erdiguneran eramatean da, haien ongizaterako funtsezko eta beharrezko elementu diren aldetik. Eta, azkenik, aniztasuna eta interkonexioa funtsezko bi elementutzat ulertu behar direla aipatzen du: askotariko garapen ereduak, lurralde bakoitzera egokitura eta zehaztuta, ikuspegi lokal/global batetik eta gainerako lurraldeekiko loturatik begiratuta.

Gainera, Donostiako Udalak azken urteotan egindako lanari jarraipena emanez, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak egindako eta hainbat dokumentutan jasotako proposamenarekin bat etorritik¹¹, uste dugu garapen eredu horrek jasangarritasuna, ekitatea eta ahalduntzea izan behar dituela oinarri eta sustatu behar dituela, eskubideen ikuspegi batetik begiratuta.



¹⁰ Ikus 8. orrialdeko oin-oharra.

¹¹ Informazio gehiago lortzeko, ikus Eragin politikorako eredu dokumentua (s/f), [hemen](#); eta Politiken eta Giza Garapen Iraunkorraren ikuspegiaren arteko koherentziaren azterketa. Proposamen metodologikoa, [hemen](#); biak ala biak Euskadiko GGKEen Koordinakundearenak.

4.2.1.1. Jasangarritasun ekologikoa

“Jasangarritasunaren irizpideak adierazten du garapen eredu hau mamitzean, gutxienez honako hauek hartu behar direla aintzat: planetaren muga fisikoak eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea eta garapenerako aukera (...) Klima aldaketa eta krisi ekologikoa direla medio, gure gizarteek, halabeharrez, jasangarritasuna zainduz egituratu eta antolatu behar dute beren burua, eta premisa horrekin bat etorriko diren ekoizpen eta kontsumo ereduatarantz egin behar dute bidea”¹².

Jasangarritasun printzipio horretan, kontuan izan behar dugu planeta bizi bakar batean bizi garela onartu behar dugula, eta, beraz, gure errealitate lokalean jasangarriak diren garapen ereduak sustatu behar ditugula, baina gainerako herri eta lurraldeen jasangarritasunarekin zuzenean lotuta.

Hori horrela izanik, jasangarritasunaren ikuspegi horrek lehenetsunezko helburutzat agertu behar du politika publiko guztietan eta, bereziki, lankidetzako politikan. Plan honen esparruan garatutako lankidetzako eta GEHko ekimen guztiek ingurumenaren errespetua bermatu behar dute, garatzen diren lurraldeen jasangarritasunarekin erantzunkide izan behar dute, eta jardunbide eta jarreretan eraldaketak sustatu behar dituzte planeta alde.

4.2.1.2. Ekitatea

Lankidetzako politikan oinarrituta eta beste garapen eredu batzuk sortuta, dauden desparekotasun guztiei aurre egin behar diegu. Ekitatearen printzipioa betebeharrari bati egiten dio erreferentzia; hain zuzen ere, “pertsona guztiei baliabideak, eskubideak eta askatasunak modu ekitatiboan bermatzeko betebeharrari, eta, horretarako, kontuan hartzen ditu, alde batetik, aniztasuna eta bakoitzak duen egoera eta jarrera eta, bestetik, zapalkuntzaren eta diskriminazioaren askotariko aldagaiak, hala nola generoa, arraza, jatorria, sexu aukera, dibertsitate fun-

¹² Politiken eta Giza Garapen Iraunkorraren ikuspegiaren arteko koherentziaren azterketa. Proposamen metodologikoa; [hemen](#) eskuragarri. 8. orrialdea.

tzionala, adina, eta abar. Horrela, bada, besteak beste, birbanaketaren, elkartasunaren, justizia sozialaren, unibertsaltasunaren eta/edo aniztasunaren ideiek garapenaren eta jardun politikoaren ikuspegi oro bideratu beharko lukete".

Alde horretatik, beharrezkoa da desparekotasunak ikuspegi intersektional batetik ulertzea, elkarren artean eragiten duten hainbat sistemak sortzen dituzten zapalkuntza eta desparekotasunak aztertuta eta horietan eraginda.

Ikuspegi horretatik begiratuta, patriarkatua – sistema gisa– eta generoak eragindako askotariko desparekotasunak egungo garapen ereduaren oinarriarri daudela baieztatu dezakegu. Eguneko eredu emakumeek eskubideak baliatzeko aukera eta baliabideetarako sarbidea ukatzean oinarritzen da, haien bizitzan, denborean eta gorputzen ustiapenean; aitortu gabe eta ordaindu gabe egiten duten izugarritzko lanean; indarkeria –adierazpen guztietan– erabilia, menderatze horri eusteko mekanismotzat. Sistema hori oso koloniala eta arrazista ere bada.

Testuinguruak eta egoerak desberdinak izan daitezke, aniztasunaren eta pribilegioen prisma oso presente egon behar du, baina elementu komun batekin: genero ekitatearen aldeko borroka eta emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak desagerraraztea zeregin globala da. Genero ikuspegia kontuan ez hartzeak desparekotasunak areagotzen dituzten ekimenak abian jartzea dakar. Horrela, bada, Plan honen arabera, genero ikuspegia garatzen diren ekimen guztien fase guztietan txertatu behar da nahitaez, bai horiek planifikatzean, gauzatzean, garatzean eta ebaluatzean. Baita erakundearen beren jardunbideetan eta egituretan ere. Genero azterketak proiektu guztien abiapuntu izan behar du, eta helburu izango dituzte, besteak beste, identifikatutako askotariko desparekotasunak gainditzea eta gizarte ekitatiboak sustatzea, guztiontzat bizigarriak diren gizarteak, aniztasunak aniztasun.

4.2.1.3 Ahalduntzea eskubideen ikuspegitik

Giza eskubideak errespetatzea, babestea eta sustatzea edozer garapen estrategiaren pre-

misa eta helburu da, aldi berean. Giza Garapen Jasangarriaren (GGJ) ikuspegitik, pertsonak eta komunitateak beren garapenaren subjektu dira, eta, beraz, hura definitzeko lanean parte hartu behar dute. Eskubide zibil eta politikoak, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak eta hirugarren belaunaldikoak oinarritzko eskubideetat hartu behar dira, eta baldintza hori bete ezean, ezin izango dugu guztiontzat bidezkoak diren garapen ereduatarantz aurrera egin.

Subjektu izaera hori ez dago bermatuta indarrean dagoen garapen ereduaren. Eskubideen ikuspegitik, aintzat hartu behar dugu garapen prozesuetan abian jartzen ditugun ekintzek ez dutela soilik behar praktikoko zehatzak asetzea bilatu behar, ikuspegi asistentzialista batetik, baizik eta pertsonengan, erakundeengan eta komunitateengan gaitasunak sortzea, haiek beren interes estrategikoak defendatu eta dituzten eskubide guztien errespetuan eragina izan dezaten.

Apustu horrek, era berean, lotutako bi estrategiatara garamatza: ahalduntzea eta parte hartzea sustatzea. Ahalduntzeak herritarren kontzientzia indibiduala eta kolektiboa sustatzeko beharrezkin lotzen gaitu; izan ere, ikuspegi kritiko batetik eta beti bizitza aniztasuna kontuan hartuta, beste garapen eredu horren subjektu da eta ongizatearen ideia propioa ezartzen du. Parte hartzen duten herritarrak, antolatutako egiten direnak, beren gaitasunak eta ekintzailtza areagotzen dituztenak.

Beraz, Donostiako Udalak, Plan honen esparruan, uste du ekimen guztiak ikuspegi horretatik formulatu behar direla. Hegoaldeko komunitate antolatuen lehentasunei erantzuten dieten garapen ekimenak bultzatu behar dira, bai eta berdinaren arteko elkartasuneko eta aliantzazko harreman horizontalak bultzatuko dituztenak ere, komunitate horien berezko prozesuak errazten eta indartzen lagunduz, ordeztu nahi izan gabe. Lankidetzak ekintza guztiek biztanleria subjektua onuradun gisa hartu beharrean eskubideen eta askatasunen agente titular gisa jo behar dute. Pertsonen gaitasunak indartzea sustatu behar dute, beren eskubideak erreklamatu ditzaten, batez ere emakumeenak, oraindik indarrean dagoen sistema patriarkalak koka-

tzen dituen mendekotasun egoeragatik, baita biztanle zaugarrienenak ere, eta pertsona eta erakunde titularrei betebeharrak eta erantzukizunak eskatzea, horiek bete ditzaten.

4.2.2

Elkartasuna, erantzunkidetasuna eta ikuspegi lokala/globala

Elkartasuna giza balio garrantzitsu eta funtsezkoenetako bat da; are gehiago, justizia sozialeko elementu bat da, ezinbestekoa guztion onerako bidean aurrera egiteko. Nazioarteko elkartasuna gizarte osoaren konpromisoa eta zeregina da, erakunde publikoetatik hasi eta gizarte eragileengana eta norbanakoengana. Printzipio hori kontuan hartzen da Udalaren lankidetzako politikaren muinean.

Baina, horrez gain, plan honetan erantzukidetasunaren eta ezinbesteko ikuspegi lokalaren/globalaren ideiak berreskuratu nahi ditugu. Biek interpelatzen gaituzte ulertzeko guztiok daukagula gaur egungo bizitza eredu jasanezin, desorekatu eta bortitza eraldatzeko erantzukizuna. Garapen txarra ez da Hegoaldeko herrialdeen arazoa, iparraldeko gizartearen eta egungo globalizazio ereduaren ondorio zuzena baizik.

Gero eta nabarmenagoa da mundu interdependente batean bizi garela, eta elkarrekin lan egitea, eta loturak eta aliantzak sustatzea eskatzen duten erronka komunak ditugula aurrean. Errealitate konplexu horren ulermenean sakondu behar dugu; pribilegioen, erantzukizun asimetrikoen eta estrategia partekatuen azterketa integratu behar dugu; ipar-hego binomioa hautsi behar dugu, eta kausak, inpaktuak eta erantzun alternatiboak hemen eta han lotuko dituen ikuspegi baterantz aurrera egin. Herritar kritiko eta arduratsuak sortu behar ditugu, beren gain hartuko dutenak eguneroko ekintzek, esaterako elikagaiak erosteak, mundu mailako asimetrien erreprodukzioan duten eragina. Tokian tokiko lana bultzatu behar dugu, iparraldean zein hegoaldean lurralde erresilienteak, jasangarriak eta bizigarriak sustatuta, baina betiere globaltasunarekin lotuta. Sareak ehunduta dagoeneko martxan dauden aukera guztien artean.

Lankidetzaren politikaren eremu espezifikoan, ikuspegi lokal-globalak honako helburu hauek lortu nahi ditu: lan egiteko modu zatikatuak gainditzea, hau da lankidetzako, ekintza humanitarioko eta GEH ekimenen arteko banaketa eta zatiketa gainditzea; nazioarteko elkartasuneko lotura horizontalak sendotzea; beste begirada batzuk integratzea; hegoaldearen jakintzak aitortzea; eta aliantzak, ikaskuntzak, aintzatespena eta elkarrekiko errespetua sortzea.

Horretarako, funtsezkoa da Donostiako herritarren parte hartze aktiboa sustatzea. Alde batetik, GEH ekintzen bidez, honako hauek sustatzeko: norbanakoaren eta taldearen kontzientzia hartzea, justiziarekiko eta jasangarritasunarekiko konpromisoa, giza eskubideen defentsa, genero ekitatea, natura, kontsumo praktiken eraldaketa eta gizarte eraldaketarako eragina. Bestalde, gizartearen parte hartzearen bidez, lankidetzako politika publikoak definitzeko eta garatzeko lanean. Kasu horretan, lankidetzako Kontseilua bezalako organoak funtsezko guneak dira parte hartze hori bideratzeko, baina administrazioak beti egon behar du herritarrei eta haien eskaerei irekita.

Plan honen asmoa da garatutako ekintza ildo guztietan elkartasuna, erantzunkidetasuna eta ikuspegi lokala/globala integratzea, ikuspegi horien ulermena eta inplementazioa hobetzeko beharrezko tresna guztiak (adibidez, prestakuntzakoak) eskura jarrita.

4.2.3

Koherentzia eta kalitatea

Iparaldeko politikaren (baita tokikoak ere) eta hegoalde globaleko inpaktuen arteko interdependentsia gero eta handiagoak erakusten digu GGJ ikuspegiak eta esparru horretan planteatutako printzipioek ez dutela lankidetzaren eremuko gai esklusiboak izan behar, baizik eta ekintza publiko osoarekiko zeharkakoa. Garapenaren arloan eginiko ahaleginak alferrikakoak izango dira beste politika batzuen ondorioek ahultzaren edo kontraesanean jartzen badituzte, desberdintasunak desagerrarazteko sinergiak sortzeko eta gizarte konprometitu, justu eta bidezkoak erakitzeke aukera aprobetxatu beharrean.

Horregatik, Plan honi dagokionez, garrantzi berezia du koherentzia printzipioak, gutxienez bi zentzutan. Koherentzia, esan bezala, udal politika publiko guztietarako; horretarako, beharrezkoa da GGJren ikuspegia zeharkako ardatz gisa txertatzea eta beharrezkoak diren baliabide guztiak ezartzea. Eta, bestetik, koherentzia behar den lankidetzaren politika motari dagokionez, honako funtsezko printzipio hauek lantzeko aukera eman behar baitu: jasangarritasuna, ekitatea eta ahalduzkoa. Lankidetzaren politika sendoa eta kalitatezkoa behar da premiazko eta beharrezko eraldaketa horiek guztiak sustatu ahal izateko.

Hala, bai lankidetzan, bai GEH arloan, ekimenez eraldatzaileak izan behar dute, eta epe luze-rakoak, aldaketa mailakatuko prozesuak, zeinen bitartez, pertsonak, bai hangoak, bai hemengoak, gure eskubideen jabe egingo garen eta haiek bete daitezela eskatuko dugun, hausnarketa kritikoaren eta ezagutzaren bidez.

Udaleko Lankidetzaren Atalak, bere izaera publiko-gatik hain zuzen ere, beti izan behar du kontuan bere ekintza eta erabakiak publikoak, partekatutak eta gardenak izatearen garrantzia. Eta, Donostiako herritar guztien ahaleginaren emaitza den diru publikoaren kudeaketaren arduradun gisa, funtsezkoa da kalitate eta eraginkortasun irizpide zorrotzekin inbertitzea, bai zuzenean kudeatzen den partidan, bai zeharkakoan, eta herritarrek udal funtsekin egindako lankidetzako ekintzen berri izan behar dute. Ezinbestekoa da datu publiko eta eguneratuak edukitzea, herritarrek eta elkarten sareak udal administrazioak lankidetzari egiten dion ekarpenaren jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko. Gardentasuna, komunikazioa eta kontuak ematea politikaren zikloaren fase guztietan egon behar dira.


Plan honen asmoa da printzipio horiek bere tresna eta jardura guztietan zeharka txertatzen jarraitzea, etengabeko ikaskuntzan eta jardunbide egokiak sortzen aurrera egitea ahalbidetuko duten neurriak ezarrita.

4.3 Interes bereziko eremuak

Interes bereziko eremuak dira, aurreko ataletan aipatu ditugun beharrezko eraldaketetan aurrera egiteko, haietan eragitea bereziki estrategikotzat jotzen dugun horiek. Horiek definitzeko, beraz, eremu horietan lan egiteak duen potentzialtasuna identifikatu behar da; gure zeharkako printzipioen intereseko ardatzez jabetu behar gara; eta ahaleginak kontzentratu behar ditugu arlo horietan, eragin handiagoa izateko.

Bestalde, arlo horien definizioak ez dio bizkarra ematen Donostiako lankidetzaren errealitateari, arlo horietan guztietan esperientzia luzea baitu. Beraz, ez dugu uste administrazioak erakundeak haien egitoki eta interesetatik kanpo dauden eremuetara bideratzen dituenik, baina lehentasuna ematen diegu Donostiako Udalarari proposatutako esparru partekatu zabalago horretan zentzua duten batzuei.

Interes bereziko arloak erreferenteak dira lankidetzaren eta GEHren esparruko jardueretarako, bai zuzeneko lankidetzarako, bai zeharkako lankidetzarako. Aurreko planetan bezala, ahalegin berezia egingo da arlo guztien gauzatzeari koherentzia eta argitasuna emateko dagozkien tresna guztietan, batez ere dirulaguntzen le-
roan.



4.3.1

Giza eskubideak babestea eta sustatzea

Donostiako Udalak eskubideen ikuspegia duten garapen ekimenak eta programak bultzatu nahi ditu, hau da, gizakia bere azterketa eta proposamenen erdigunean jartzten dutenak. Lankidetzako esku hartzeen azken helburuak pertsonen eta herrien eskubideak eta ahalduntzea bermatzea izan behar du, eta ez soilik oinarrizko premiak asetzea.

Giza eskubideez ari gara zentzurik zabalenean, hau da, eskubideen hiru belaualdiez: zibilak eta politikoak; ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta elkartasunezkoak. Kontuan hartuko da kolektibo ahulenen eskubideen defentsa eta bermea.

Zentzu horretan, emakumeen eskubideei egiten diegu erreferentzia modu espezifikoagoan; hala nola indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea, sexu eta ugalketa eskubideak, parte hartze-ko eskubidea eta bizitza duina izateko eskubidea.

Era berean, aipamen berezia egiten diegu haurrei eskubideen subjektu aktibo gisa, adinaren arabera diskriminazio eta desabantaila egoeratik, zeini genero bazterkeria batu behar baitzaie, nesken kasuan. Ez da ahaztu behar kolektibo hori dela ahulena, eta haur eta nerabeak direla pobrezia, klima aldaketaren edo gizarte bazterketaren kaltetu nagusiak, bai Hegoalde globalean, bai Iparralde globalean. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren eta haren antzeko tresnen balioa berreskuratu behar dugu; izan ere, hitzarmen horrek haur guztien eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak jasotzen ditu bere artikuluetan¹³.

Era berean, aipamen berezia egiten diegu LGTT-BIQ kolektiboari, beren sexu izaeratik eguneroko egin behar baitiete aurre indarkeria eta diskriminazio ekintzei, eta giza eskubideen urraketat jasan baititzaizkete, besteak beste, indarkeria homofobia eta lesbofobia, erailketa, bortxaketa, atxiloketa arbitrarioa eta diskriminazio orokorra beren lantokian, bai eta diskriminazioa oinarrizko zerbitzuak eskuratzeari dagokionez ere, esaterako etxebizitza eta osasun laguntza.

Ezin dugu alde batera utzi lekualdatutako edo errefuxiatutako biztanleek pairatzen duten eskubide urraketa iraunkorra, askotan beren lurraldeak utzi behar izaten baitituzte sistema neoliberalaren eragin zuzenagatik, interes geoestrategikoeekin lotutako gerra eta gatazken ondorioz.

Beren lurraldeetan geratzen direnak, askotan proiektu estruktibista handietatik defendatzeko edo pertsona eta kolektibo ahulenen eskubideen alde lan egiteko, etengabeko arriskuan daude eta erasoak jasaten dituzte. Babesleen hilketa kopuruak hazten jarraitzen du.

Arlo horretan, honako hauek sustatuko dituzten ekimenak bultzatuko dira: giza eskubideen defentsa eta indartzea; urraketa horien atzean dauden arrazoiei buruzko kontzientzia hartzea, bai indibiduala, bai kolektiboa; horiek erazteko antolaketa kolektiboa; prestakuntza, ikerketa eta salaketa, bai tokian-tokian, bai mundu osoan; eta eragina duten ekintzak, maila guztietan.

4.3.2

Parte hartzea eta ikuspegi lokala/globala indartzea

Benetako giza garapen iraunkorra lortu nahi duen eta pertsonak eta herriak eraldatzeko helburua duen ekintza orok haien ahalduntzea bultzatu behar du, herritarren tokiko gaitasunak indartu behar ditu eta arlo publikoan eta antolaketa parte hartzea sustatu behar du. Bereziki, parte hartzea erraztuko duten baldintzak sortzea bermatu behar da, batez ere diskriminaziorik handiena jasaten duten kolektiboena, haien beharrak eta interesak proposamenetan eta politiketan kontuan har daitezten. Hori biztanleria onuradun kontzeptuaren bilakaeran islatzen da, zeina subjektu biztanleria edo biztanleria eragile izatera igaro baita lankidetzaren arloan.

Parte hartze hori baldintza bat da, eta hori gabe, ezin dugu esan erantzunkidetasuna eta ikuspegi lokala/globala gure ekintzetan txertatzen ari garenik. Beharrezko gaitasunak, baliabideak, eta denborak izan behar ditugu eraldaketak gure tokiko errealitateetatik sustatzeko, haien inpaktua eta tokikoarekiko duten lotura

¹³ Informazio gehiago, [hemen](#)

landuta. Aurrean ditugun arazoen argi eta garbi bideratzen gaituzte hegoaldeko eta iparraldeko errealtate globalen arteko gero eta lotura handiagoak sortzera, bai gure analisisetan, bai erantzun alternatiboetan.

Interes bereziko arlo honetan, ekimenak bultzatu nahi ditugu, non benetako partaidetzarako, antolaketarako eta herritarren mobilizaziorako espazioak sortzen diren, han eta hemen. Biztanleria subjektu horren premia eta interes estrategikoei erantzungo dieten ekimenak. Proposamen horiek dauden gizarte erakundeetan dute oinarria eta indartu egiten dituzte, sareak artikulatzea eta sortzea bultzatuta. Jakintzak, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko espazioak sortzen dituzten ekimenak, hegoaldeetatik zuzendutako begiradei leku nagusi bat ematen saiatuta. Jarduera horietan arreta berezia jaritzen da gure ingurune hurbileneko pertsona migratuen parte hartzean, haien ikusezintasuna eta gizartearen aintzatespenik eza apurtuz. Proposamen horiek azterketarako, hausnarketarako eta garapen eredu hegemonikoaren aurrean posizionatzeko espazioak sortzen dituzte.

4.3.3

Emakumeen ahalduntzea eta genero ekitatea sustatzea

Arlo horretan, Udalak emakumeak ahalduntzeko prozesuak sustatzeko eta genero ekitatea lantzeko estrategia bikoitza bultzatzearen alde eginiko apustua jasotzen dugu. Beharrezkotzat jotzen dugu honako helburu nagusi hauek dituzten ekimenak babestea: genero berdintasuna, berdintasuntzat ulertuta emakumeek eta gizonen baliabideak eskuratu eta kontrolatzeko aukera bera izatea, eta berdintasun baldintzetan parte hartzea ekonomia, politika, gizarte eta kultura arloetan. Pobreziak neurri handiagoan eragiten die emakumeei gizonen baino, eta modu larriagoan eta iraunkoragoan. Sistema emakumeen lan prekarioan, ikusezinean eta askotan doakoan oinarritzen da. Errealitate horren aurrean, ez dugu ahaztu behar erresistentzia boteretsuenak eta ekimen sortzaile eta berri-tzaileenak emakume antolatuengandik datozela askotan, pertsonen ongizatea lehenetsiko duen sistema batera igarotzeko ekintzaileak baitira.

Bestalde, gero eta gizon gehiago antolatzen ari dira dagokien zatia lantzeko, maskulinitate hegemonikoaren eredu gairatzeko eta maskulinitate berdinzaleagoak lortzeko bidea egiteko. Gizonen eta emakumeen arteko botere harremanak aldatzeko, lehentasunezkoa da emakumeak ahalduntzearen alde lan egitea, baina, era berean, funtsezkoa da gizonak modu aktiboan inplikatzeko aldagaita horretan.

Donostiako Udalak bere egiten du borroka hori, eta irmo hitzematzen du zehazki arlo hauetara bideratutako ekimenak babesteko dituela, bai hegoaldean, bai gure hurbileneko errealtatean: indarkeria matxistaren aurkako borroka bere adierazpen guztietan; gaitasunak indartzea eta ahalduntze ekonomiko eta soziala, eta emakumeen parte hartze politikoa; haien sexu eta ugalketa eskubideak sustatzea. Gainera, beharrezkotzat jotzen dira gizonen pribilegioei buruzko lanean, maskulinitate hegemonikoaren dekonstrukzioan eta genero berdintasunarekin konprometitutako berdintasunezko maskulinitate eredu berriak sustatzean zentratutako ekimenak.

Era berean, bereziki garrantzitsua da erakundeen barnealdera zuzendutako lanean aurrera egitea, haiek osatzen dituzten pertsona guztien ekitaterantz aurrera egingo duten egiturak, antolakuntza ereduak eta prozedurak sustatuta. Bereziki garrantzitsua da gure erakundeak eraldatuko dituzten tresnak eskuratzea, horietan desberdintasun eta indarkeria egoerarik sor ez dadin, eta antolamendu kultura bidezkoak eta horizontalak sortzea.

4.3.4

Kontsumo eta ekoizpen kontzientzia eta arduratsua bultzatzea

Egungo sistemaren benetako eraldaketarako eta haren jasangarritasunik ezari aurre egiteko bideetako bat beste ekoizpen eta kontsumo eredu batzuk sortzea da. Gutxiago kontsumitu eta ekoiztu behar dugu, baina baita desberdin ere, jasangarritasun ekologiko eta sozialeko irizpideak gure ereduaren erdigunean jarrita. Lehentasunezkoa da gure ekonomiak birkokatzea, tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatzea eta ekoizpen, eraldaketa eta hornidura zirkuituak laburtzea. Planetaren muga fisikoez jabetuta ekoiztea, garatutako ekimen ekonomikoek printzipio ekologikoei eta ekitate printzipioei erantzuten dietela bermatuta. Elikagaiek, gure jantziek, ezin dituzte milaka kilometro egin guregan prezio merkeetan iristeko, Hegoaldeko pertsonen eskubideen eta esplotazioaren kontura. Elikadura subiranotasuna, ekonomia sozial eta solidarioa edo bidezko merkataritza bezalako proposamenek kontsumo aukera zehatzak aurkezten dizkigute hemen eta orain, eta horiek sustatu eta indartu behar ditugu.

Udalak bereziki babestuko ditu ezagutzen eta kontzientzia kritikoa sortzen aurrera egiten duten ekimenak, bai eta kontsumo eta ekoizpen arduratsu eta kontzientea bultzatzen duten jarrerak ere, kontsumo etikoa, ekologikoa eta solidarioa eta finantza etikoa barne, eta konpromiso hori sistema bidezkoago eta solidarioago baten bidez gauzatzeko tresnak (hala nola banka etikoa, bidezko merkataritzako dendak eta ekonomia sozial eta solidarioko ekimenak eta tokiko kontsumoko taldeak eta proposamen agroekologikoak, besteak beste) Donostiako herritarren eskura jartzen dituzten ekimenak bultzatuko ditu.

Bereziki garrantzitsua da Udalak printzipio horiek erosteta publikoaren eta zerbitzuen kontratazioaren bidez integratzeko duen rola. Plan honetan, Donostiako Udala horren adibide izan dadin beharrezkoak diren baliabide eta tresna guztiak martxan jartzeko konpromisoa jasotzen dugu.

4.4 Eragileak

Gure esparruari buruzko azken puntu honetan, eragileei buruzko aipamen labur bat egin dugu. Zehazki, plan hau garatzeko lehentasunezko eragiletzat jotzen ditugunak.



Lehenik eta behin, Udala identifikatu dugu. Alde batetik, lankidetzaz zerbitzua, plan honen sustatzaile den aldetik. Baina baita Udaleko sail guztiak ere, GGJren ikuspegiarekin bat datozen politikak bultzatzeko erantzunkide diren aldetik. Plan honek apustu egiten du Udalak, oro har, gizarte bidezkoagoak eta justuagoak lortzeko duen eginkizuna indartzearen alde. Zaila da logika sektorialak hauste eta erakunde osoa inplikatzeko. Horregatik, lana estrategikotzat jotzen diren arloetatik hasiko da, plan honetan proposatutako ardatzen zeharkakotasunean urratsak ematen joateko.

Bigarrenik, GGKEak gure aliatu nagusiak direla esan dezakegu. Egoitza hirian duten GGKEak ezinbesteko erreferentzia dira lankidetzaren eta garapen ereduaren inguruko gizarte eztabaidan. Sektore oso anitza da, pobretutako hainbat lurraldetan lan ibilbide luzea egin du, eta oso errotuta dago Donostian GEH arloko ekintzak antolatzen. Aurreko planen antzera, errotze hori funtsezkoa da udal lankidetzako politikarako. Funtssezkoa da, orobat, sektorearen eta haren behar eta interesen mapa eguneratu bat izatea. Plan honetarako bereziki garrantzitsuak dira Euskadiko GGKEen Koordinakundea, sektorea egituratzen duen espazioa baita. Eta udal politikari dagokionez, Lankidetzaz Kontseilua, udal

politika definitzeko eta garatzeko erreferentzia-zko partaidetza organo gisa.

GGKEen lehen eremu horretan hegoaldeko bazkideak ere aipatu behar ditugu; izan ere, Donostiako erakundeekin batera garatutako ekimenen bidez edo zuzeneko laguntzen bidez, ezinbestekoak dira hegoaldeko biztanleek lehenetasunezko zatiz ezarritako garapen prozesuak sustatzeko beharretik abiatuta formulatzen den politika ulertzeko. Gainera, erakunde horiek, askotarikoak, ezagutza eta ikaskuntza iturri handiak dira, bai Udalarentzat, bai sektorearentzat, bai, oro har, herritarrentzat.

Hirugarrenik, estrategikoa da beste administrazio batzuekiko lana, koordinazioa bilatuz eta esparru partekatu bat dagoen kasuetan sinergiak sortzeko bidean aurrera eginez. Euskal Fondearen esparruan egin beharreko lana nabarmentzen dugu, aukera ematen baitigu hainbat udalerritatik proiektu komunitaria ekarpenak egiteko eta, horrela, gure ekintzen eragina handitzeko. Eta erakundeen arteko koordinazio espazioak, hurrengo lau urteetan indartu nahi ditugunak.

Azkenik, beste eragile batzuen atalean, nabarmentzen dugu zer garrantzitsua den, politika honetarako, plataforma eta sareek, plan honetan jasotako printzipioekin bat, elkartasun agendako puntu zehatzetan ahaleginak batzea eta hainbat eragileren arteko lana ahalbidetzea. Funtsezko gizarte eraldaketarako eragile gisa identifikatzen ditugu, eta, beraz, Plan honetarako erreferente gisa, emakumeen erakundeak eta mugimendu feminista; ekonomia sozial eta solidarioarekin eta elikadura subiranotasunarekin lotutako erakundeak; migratuen erakundeak; zaugarritasun egoeran dauden biztanleen taldeak; hezkuntza arloko erakunde formalak eta informalak; gizarte mugimenduak oro har; eta irabazi asmotik kanpo mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa eraikitzea helburu duten beste kolektibo batzuk. Oso garrantzitsua da, plan honen beste atal batzuetan ikusiko dugun bezala, era guztietako tamaina, lan eremu eta profesionalizazioetako erakundeen arteko baterako lana bultzatzea, Donostiako lankidetzaren aberastasun eta balio erantsi gisa.



GURE TRESNAK


Eragina eta koherentzia Udalean

Plan honen aurreko ataletan azaldu dugun bezala, lankidetzaren sailak GGJ esparruarekiko koherentzia bultzatzen jarraitu nahi du Udal osoan. Gure ustez, Udalak sustatzaile izan behar du erantzukidetasunaren arloan, bai Donostiako herritarrekiko zuzeneko jardunean, bai bere politiken garapenean eta zerbitzuak ematean, bai funts publikoen kontsumitzaile eta kudeatzaile gisa duen rolean.

Horretarako, plan honen hurrengo atalean azalduko diren hainbat ekintza ildo ezartzen dira; horien bitartez, informazioa areagotzea, prestakuntza hobetzea eta koherentzia horretan aurrera egitea ahalbidetuko duten ekimen zehatzak bultzatzea lortu nahi da. Lankidetzaren Atalak, beraz, bere gain hartzen du horretan eragiteko eginkizuna, horretarako tresna egokienak erabiliz (azterlanak, prestakuntzak, elkarrizketarako espazioak...).

Aipamen berezia merezi dute Udalaren erosketak eta kontratazio publiko etikoak eta arduratsua sustatzearekin lotutako ekintzek. Lan ardatz hori funtsezkoa da inpaktu maila handia duelako, eta Udalak dituen erosketak eta kontratazioetan gizarate, ingurumen, etika, lan eta berdintasun irizpideak txertatzeko jarraibideen aplikazioa sustatzen jarraitzeko borondatea jaso dugu hemen.

5.2 Tresnak



5.2.1 Dirulaguntzen deialdi publikoa

Aurreko planean bezala, hirian aktibo dauden GGKEak izango dira udal lankidetzaren eragile nagusiak. Dirulaguntzen aldizkako deialdiak jarraituko du gaitutako finantzaketa lerroa izaten.

Plan honek aldi baterako egonkortasunarekin jarraitu nahi du, deialdi urteko lehen hiruhilekoan argitaratuz, eta aurrekontua banatuz, partidaren % 70 lankidetzaren proiektuetara eta % 30 GEH ekimenetara bideratzeko, bai eta erakundeen administrazio izapideak sinplifikatzen jarraitzeko ere.

Urteroko deialdiak izan arren, batera finantzatu nahi ditugu epe luzeko prozesu egonkorretan bildutako garapen ekintzak, errealitatearen eza gutza sakonaren eta tokiko kontrapartearekin izandako harreman luzearen emaitza direnak. Atomizazioa (proiektu txiki sakabanatuak eta denboran jarraitutasunik ez dutenak ugaritzea) udal lankidetzaren arrisku bat da. Gaur egun urte anitzeko proiektuen deialdi bat ezartzeko aukerarik ikusten ez dugun arren, pro-

zesuei laguntzea bultzatuko da, programa mota horiek gehiago puntuatzen saiatuta, eta erakundeak informazioa errepikatzen eskakizunaz askatuta alde aurretik laguntza jaso duten programen jarraipenaren kasuan, eta, betiere, baldintza guztiak betetzen badituzte.

Bestalde, lagundutako ekintzak kalitatezkoak izan daitezzen eskatzen jarraituko dugu aurrerantzean ere, eta partzuergoko proiektuak sustatzen, haiei puntuazio handiagoa emanez, batez ere GEH arlokoak, eraginkortasuna handitzeko eta hiriko elkarte mugimenduan sinergiak sortzen laguntzeko. Ekintza humanitarioaren urteko deialdiari ere eutsiko zaio.

Nabarmendu beharra dago dirulaguntzen deialdi horiek Donostian benetako presentzia duten eta hirian oinarri soziala duten erakundeek zuzenduta daudela, eta hori ziurtatzeko, neurri zehatzak hartuko dira baremazio irizpideetan.

Azkenik, esan behar da lankidetzako atalarentzat funtsezkoa dela lagundutako ekintzen jarraipen egokia egitea eta eskura dauden tresnen kudeaketan etengabeko ikaskuntzako dinamikak integratzea, betiere tresna horiek berritzeko proposamenen definizioa baloratzeko aukera irekiz.

5.2.2 Zuzeneko udal lankidetzak

Tresna honetan zuzeneko lankidetzak hitzarmenak eta lankidetzak atalaz zuzenean antolatzen dituen GEH ekimenak jaso ditugu. Lankidetzak politikara bideratutako aurrekontu osoaren zatirik handiena ez izan arren, tresna horri esker, aurreko planetan jasotako jarduera ardatzetako batzuk garatu ahal izan dira nolabait, eta Udalak Donostiako herritarrak erantzunkideak eta solidarioak izan daitezzen sustatzeko egiten duen lan espezifikoak indartu da.

Plan honek orain arte egindako lanari jarraipena ematea proposatzen du, zehazkiago:

- Euskal Fondoaren parte izaten jarraitzea, Plan honen zeharkako printzipioekin bat datozen proiektuak babesten saiatuta.

- Saharar eta palestinar herriei eta errefuxiatuei edo desplazatuei ematen zaaien laguntza indartzea, udalak eremu horretan egindako ibilbide luzeari jarraipena emanda.

- Euskadiko GGKEen Koordinakundeari Donostian duen egoitzan ematen zaion laguntzari eustea.

- Eta Donostia Mundu Artean programa eta Udalak zuzenean bultzatutako GEHko hainbat ekimen sustatzen jarraitzea.

- "Oporrak Bakean" programa sustatzen jarraitzea.

- Bidezko merkataritza eta kontsumo kontzientea eta arduratsua sustatzen jarraitzea.

Plan honen elementu berritzaile gisa, politiken koherentzia garatzearekin eta horretarako tresnak sortzearekin lotutako jarduerak antolatzeko funtsak erabiltzeko aukera irekitzen da. Hori da datozen lau urteetarako estrategikotzat jotzen diren lan ardatzetako bat.

5.3 Parte hartzeko guneak

Herritarren eta gizarte eragileen parte hartzea funtsezkoa da Donostiako Udalaren lankidetzak politikak definitzeko, bai eta Lankidetzak Atalaren eguneroko lanerako ere.

Alde batetik, udal barruko koordinazio gune batean, plan honetan jasotako ekintzen eta ikuspegiaren garapenean zuzeneko inplikazioa duten beste sail batzuekin batera. Bereziki garrantzitsua da berdintasun, aniztasun eta kultura atalekin lan egitea. Berariaz aipatzen dugu Donostiako Emakumeen Etxearekin egiten den lana eta aliantza zabaltzeko interesa, hiriko erreferentziatzako gune feminista baita. Esan dezakegu Udalaren jarduera arlo guztiak barne hartzen dituen estrategia baten zati dela, herritarrek udal politiken eraikuntzan eta garapenean parte hartzeko duten eskubidea erraztera bideratua. Bestalde, garrantzitsua da, halaber, atalak beste gune batzuetan parte hartzea, adibidez, erakundeen arteko koordinaziorako guneetan, edo bere lankidetzak politikaren eragiteko gaitasuna indartzeko eta zabaltzekoetan, beste plataforma edo sare interesgarri batzuetan parte hartuta.

Plan honetan, zehatzago, hiru ekintza ildoren aldeko apustua egiten da:

- Garapenerako Lankidetzako eta Hezkuntzako Udal Kontseilua indartzen jarraitzea. Egunez egun lankidetzan lan egiten duten erakundeekin harremanetan eta elkarriketan egoteak haien eskaerak, aldarrikapenak, gogoetak eta ekimenak eguneratzen laguntzen digu. Horretarako, Kontseilua gune egokia da, eta, gainera, hainbat ikuspegi eta proposamen dituzten eragileak biltzen ditu. Plan honen bidez, espazio hori indartu nahi da, haren plangintzari lagunduz, partaidetza kuantitatiboki zein kualitatiboki hobetuz eta proposamenen eragin espazioak irekiz, bai Udalarentzat berarentzat, bai Donostiako herritarrentzat.
- Donostiako Udal gisa erakundeen arteko koordinaziorako hainbat gunetan parte hartzea. Lankidetzak politikak EAEko hainbat administrazio mailatan garatzen dira. Beharrezkoa da, politika publiko bakoitzaren espezifikotasuna eta nortasuna errespetatuta, koordinazio espazioak eta sinergiak sortzea, gure jardueren eragina areagotzeko. Donostiako Udalarentzat beharrezkoa da, gutxienez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarriketa guneak izatea. Bereziki interesgarritzat jotzen da (H)abian estrategiak irekitako espazioa.
- Aliantzak ezartzea beste sare eta plataforma batzuekin. Udal honen asmoa da sare eta plataformekin aliantzak ezartzea, alde batetik, GEH arloko ekintza batzuk elkarrekin koordinatzeko eta diseinatzeko. Zero Pobrezia plataformak aipamen berezia merezi du Donostian egin duen ibilbide luzeagatik eta biltzen duen erakunde kopuru handiagatik. Pobrezia desagerrarazteko nazioarteko eguna den urriaren 17aren inguruan plataforma horrek jarduera programa bat antolatzen du urtero, eta hainbat gai jorratzen ditu gizarte bidezkoago eta solidarioago baten aldeko aldaketa global bat bultzatzearen inguruan. Bestalde, plan honetan beste espazio, sare edo plataforma batzuekin lotzeko interesa aztertu nahi dugu, sinergiak sortzeko guneak aurkitu ahal izateko eta gure ikuspegi globala edo gure lankidetzak politikaren esparru espezifikoak elikatzen jarraitzeko.

5.4 Baliabideak

Lankidetzeta politika sendoa eta konprometitua eta dokumentu honetan jasotako ardatz estrategikoak eta ekintza ildoak garatzeko, baliabideak behar dira. Gaur egun bizi dugun krisi egoera globala gorabehera, edo, batez ere, krisi egoera hori dela eta, ahalegin handiagoak egin behar ditugu herrien arteko elkartasun harremanak sortzea eta gizarte bidezkoagoak eta konprometitua lortzeko bidean aurrera egitea ahalbidetuko diguten politikei eusteko. Horretarako, gutxienez hiru ildotan banatutako baliabideak (zentzu zabalean hartuta) edukiko dituen politika bat izan behar dugu. Horien artean:

- Lantalde tekniko espezializatu eta finkatu bat izatea. Lantalde teknikoa osatzen duten pertsonen ibilbide luzea eta ezagutza eta konpromiso handia dute beren lan eremuan. Plan honek hori indartu nahi du, etengabeko ikaskuntzarako prozesuak ezarrita, baita lau urte hauetako lana bideratzeko aukera eman go duen tresna bat sortuta ere. Horretarako, funtsezkoa da taldea osatzen duten pertsonen egonkortasuna bermatzea eta koordinazioarako espazioak sortzea.
- Plan honetan aurreikusitako ekintzak gauzatu ahal izateko aurrekontuaz hornitzea. Plan honen bigarren ardatz estrategikoan jasotzen den bezala, Udal honek garapenarekin, erantzunkidetasunarekin eta Donostia solidario bat sortzearekin duen konpromisoa beharrezko aurrekontua izango duen lankidetzeta politika batekin osatu behar da. Funtsezko elementua da hori diskurtsoaren eta praktikaren arteko koherentziaz hitz egin ahal izateko. Zailtasunak zailtasun, Donostiako Udalak apustu horri eutsi dio azken urteotan, lankidetzara bideratutako partidei eutsita. Plan honek aurrera jarraitzeko eta, pixkanaka, ekarpen hori % 0,7ra iritsi arte handitzeko borondatea jasotzen du.
- Eta beste baliabide batzuk eskura jartzea (prestatutzakoak, metodologikoak, teknikoak, denbora ertainak), urteko plangintzetan jasotako ekintza guztiak abian jarri ahal izateko, baina, bereziki, berrikuntza eta ikaskuntza dakartenak.





HIRU APUSTU ESTRATEGIKO, 14 EKINTZA LERRO

Plan honek hiru apustu estrategiko ezartzen ditu, datozen lau urteetan egin beharreko lana antolatzeko eta lehenesteko:

1. Lankidetzaren eta GEH eredu kritiko eta eraldatzaile bat sustatzen jarraitzea, gizarte zuzenagoak, bidezkoagoak, konprometitua-goak eta solidarioagoak garatzen laguntzeko, eta Iparralde eta Hegoalde globalaren arteko lotura sendotzeko.
2. GGJ ikuspegia eta lankidetzaren politika bideratzen duten printzipioak Donostiako Udalaren politika eta ekintza guztietan koherentziaz integratu daitezkeen sustatzea.
3. Elkartzaren eta gizarte eraldaketarako hezkuntzaren esparruko eragileen arteko koordinazioa eta aliantza lokalak eta globalak indartzea.

Jarraian, ardatz horietako bakoitzerako lehenasunezko ekintza lerroak eta ekintza espezifiko batzuk zehaztuko ditugu, bai eta dagokion adierazle multzoa eta aurreikusitako kronograma ere. Hau Planaren ibilbide orria da, eta urteko plan operatibo bakoitzean zehaztu eta doitu beharko da.

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA

LANKIDETZA ETA GEH EREDU KRITIKO ETA ERALDATZAILE BAT SUSTATZEN JARRAITZEA, GIZARTE ZUZENAGOAK, BIDEZKOAGOAK, KONPROMETITUAGOAK ETA SOLIDARIOAGOAK GARATZEN LAGUNTZEKO, ETA IPARRALDE ETA HEGOALDE GLOBALAREN ARTEKO LOTURA SENDOTZEKO.

Ardatz honek udal lankidetzako politikatik egiten den lan guztian jartzen du arreta, jarduera eremu desberdinen bidez (garapenerako lankidetzeta, GEH eta ekintza humanitarioa). Horretarako hainbat tresna daude, bai zuzeneko lankidetzakoak, bai dirulaguntza lerroak, eta gure ikuspegi errealitatera egokitzen laguntzen dute. Ardatz honetan funtsezkoa da lankidetzeta eredu eraldatzaile bat izatea, Iparraldeko eta Hegoaldeko errealitateen arteko loturak ezartzea ahalbidetuko duena, eta bidezkotasun, justizia eta elkartasun maila handiagoak lortzen ahaleginduko dena.

Ardatz honetan Donostiako Udalaren apustu espezifikoak eta propioak ere jaso dira, hala nola Donostia Mundu Artean programa, palestinar edo saharar herriei laguntzea (besteak beste), eta Euskal Fondoaren esparruan lanean jarraitzearen aldeko apustua. Azkenik, etengabeko ikaskuntza integratu nahi da udal lankidetzako politika praktikan jartzeko garaian.

Ardatz estrategikoko adierazleak:

- Udal lankidetzako politika garatzen duten tresna guztiek koherentziaz jarraitzen diote Plan honi.
- Kalitatezko lankidetzeta eredu bat lortzeko lanean jarraitzen da, Iparralde eta Hegoalde globaletako prozesuak lotzeko.
- Donostiar herria kritikoa eta solidarioa izatea sustatzen da.

1.1 Ekintza Ierroa

Dirulaguntzen deialdi bat egitea, Plan honen ikuspegiari koherentziaz jarraitzen diona.

Donostiako Udalaren lankidetzaren funtsen zati handi bat garapenerako lankidetzaren eta GEH proiektuetarako dirulaguntzen deialdiaren bidez bideratzen da. Deialdia norgehiagoka modalitatean da, eta, ekintza humanitarioaren kasurako, eta etengabe zabalik dago, funtsak agortu arte. Beraz, ezinbestekoa da erroa eta tresna guztiak Plan honekin koherenteak direla bermatzea, oinarriari, baremazio irizpideei nahiz ekimenei laguntzeko ebazpenei dagokienez.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
1.1.1. Deialdien oinarriak eta baremazio irizpideak berrikusi eta Plan honetara egokitzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako berrikuspena - Kontseiluaren oinarrien lantaldeak egindako ekarpenak - Egindako doikuntzak 				
1.1.2. Laguntza erroen ebazpenek Plan honi koherentziaz jarraitzen diotela bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Ebazpenen azterketa, printzipioen eta interes bereziko arloen arabera. 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak <p>Kontrastatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Kontseilua 					

1.2 Ekintza lerroa

Atalaren GEH lana indartzea, Donostiako lankidetzaren sektorearekin koordinatuta eta Plan honen printzipioei jarraituz.

Atalaren lankidetzaren politiken bidez ibilbide luzea egin da elkartasuna sustatzeko, herritarrik kritikoak eta arduratsuek izateko eta Hegoaldearen eta Iparraldearen artean loturak ezartzeko ahaleginarekin. Lan horrek, funtsean, bi lerro nagusi izan ditu: lehenik eta behin, hirian antolatutako jardueren agenda, betiere GGKEen sektoreak jada antolatuekin osagarri eginez eta gai interesgarriak berriak integratuz; eta bigarrenik, Donostia Mundu Artean programa, hiriko elkartasun agenda jasotzen duen komunikazio tresna. Plan honen asmoa da bi lan lerro horietan sakontzen eta hobetzen jarraitzea.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
1.2.1. Plan honen printzipioei jarraitzen dieten GEH jarduerak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urtero gutxienez 5 jarduera antolatzea - Urteko plan operatiboetan jasotako lan lerroak - Bertaratzea eta balorazioa 				
1.2.2. Donostia Mundu Artean tresna hobetu, haren erabilera erraztu eta inpaktua areagotzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Programaren hedapen estrategia hobetzea - Tresnaren erabileraren datuak eta balorazioa hobetzea - Donostia Mundu Artean programaren amaierako barne ebaluazioa 				
1.2.3. Bidezko merkataritza eta kontsumo kontziente eta arduratsua sustatzen jarraitzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko aurrekontu ekarpena. 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak <p>Kontrastatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Kontseilua 					

1.3 Ekintza Ierroa

Donostiako Udalak saharar eta palestinar herriei, errefuxiatuei eta lekualdatuei emandako babesa eta haiekiko konpromisoa mantentzea.

Donostiako Udalak denbora asko darama saharar eta palestinar herriei, errefuxiatuei eta lekualdatuei babesa ematen eta haiekin konprometituta. Horretarako hainbat tresna erabiltzen ditu, hala nola lankidetzak eta GEH ekintzen bidez emandako laguntza zuzena, adierazpen instituzionalak edo bidaia tekniko eta instituzionalak. Plan honen baitan konpromiso horri eutsi nahi zaio, egokitzat jotzen diren tresnak erabiliz; alde batetik, lurralde horietako bizi baldintzak hobetzeko, eta, bestetik, donostiarrei ezagutzera emateko pertsona horiek zer egoeran dauden, zergatik eta zer eskari dituzten, eta, horrela, sentsibilizatzea lortzeko.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
1.3.1. Saharan, Palestinan eta errefuxiatuekin eta desplazatuekin egiteko ekimenak babestea.	<ul style="list-style-type: none"> - Planaren iraunaldian lankidetzak zuzeneko 9 ekimen babestea, gutxienez. -Gutxienez, "Oporrak Bakean" programari laguntzeko ekintza bat - Planaren iraunaldian GEHko 4 ekimen antolatzea, gutxienez. - Planaren iraunaldian Udalaren laguntza instituzionaleko 8 ekintza egitea, gutxienez. 				
1.3.2. Oporrak Bakean programatik eta saharar herriari laguntzeko beste ekintza batzuetatik ikaskuntzak lortzea, ebaluazioaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik.	<ul style="list-style-type: none"> - Programa horien analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa, haien eragina, bilakaera eta epe labur/ertaineko aurreikuspenak neurtuz. 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzak Ataleko teknikariak eta politikariak 					

1.4 Ekintza lerroa

Donostiako Udalaren lankidetzaren indartzea jarraitzea, Euskal Fondoan aktiboki parte hartuz.

Donostiako Udala Euskal Fondoaren kide da 1988az geroztik. Euskal udalerrien fondo horretan parte hartzeak aukera ematen du beste administrazio batzuekin koordinatuta lan egiteko Plan honen lehenetsunekin lotura estua duten proiektuetan, bai eta egindako jardueren eragina areagotzeko ere. Zehazkiago, Donostiako Udalak babesa ematen die saharar herriarekin lotura handia duten ekimenei eta genero berdintasunarekin eta LGTBIQ kolektiboarekin lotutako politikiei.

Datozen lau urteetako asmoa da laguntza horri eustea, babestutako ekimenak Plan honen printzipioekin koherenteak izan daitezen sustatzen jarraitzea, eta Udalak arlo horretan duen parte hartzea eta eragina hobetzea.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
1.4.1. Euskal Fondoan aktiboki parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko aurrekontu ekarpena (kuota eta hitzarmena) - Fondoaren zenbat bileratan eta topaketatan parte hartu den - Donostiako Udalak Euskal Fondoan duen parte hartzearen balorazio kualitatiboa 	2021	2022	2023	2024
1.4.2. Babestutako proiektuak Plan honen ikuspegiari jarraitzen diotela bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Plan honekin bat etorritako babestutako proiektuak hautatzeko irizpideak - Babestutako proiektuen egokitasunaren eta garapeneraren balorazioa - Lankidetzaren Kontseiluari emandako informazioa 	2021	2022	2023	2024
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak 					

1.5 Ekintza Ierroa

Udalak bultzatutako lankidetza politikaren garapenean etengabeko ebaluazio eta ikaskuntza dinamikak txertatzea.

Udalaren lankidetza politikak hainbat tresna ditu, hala nola garapen, GEH eta larrialdiko laguntzarako proiektuak eta zuzeneko lankidetzako hitzarmenak eta ekimenak. Horiek guztiak finkatuta daude, ekintzarako baliagarriak dira eta bultzatu nahi den ikuspegiari eta ereduari jarraitzen diote.

Hori horrela bada ere, lankidetza politiken testuinguruan ere aldaketak egin eta ikuspegi eta proposamen berriak integratu daitezke, eta horrek eragin zuzena du tresna tradizionalenei buruzko hausnarketan eta beste tresna batzuk ezartzeko interesean.

Plan honetarako, eta politika publikoen garapenean etengabeko ebaluazio eta ikaskuntza dinamikak integratzeko beharra kontuan hartuta, interesgarria iruditzen zaigu beste administrazio publiko batzuen esperientzia aztertzea eta ezagutzea, bi lerrotan: ikuspegi lokala/globala integratzea eta ekimen babestuak formulatzeko eta horien jarraipena egiteko beste tresna batzuk definitzea.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
1.5.1. Ikuspegi lokala/globala integratzeko esperientziak ezagutzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Esperientzia interesgarrien mapaketa/berrikuspena (online) - Gaiarekin lotutako 2 ikastaro/truke espaziotan parte hartzea, gutxienez - Esperientzia horien egokitasunaren balorazioa Udalaren lankidetza politikarako 				
1.5.2. Udal lankidetzako beste esperientzia batzuetatik garatutako beste tresna berritzaile batzuei buruzko ezagutza zabaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Tresna berritzailei buruzko mapaketa - Identifikatutako administrazio interesgarriekin egindako kontaktu kopurua - Esperientzia horien egokitasunaren balorazioa Udalaren lankidetza politikarako 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetza Ataleko teknikariak 					

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA.

GGJ IKUSPEGIA ETA LANKIDETZA POLITIKA BIDERATZEN DUTEN PRINTZIBIOAK DONOSTIAKO UDALAREN POLITIKA ETA EKINTZA GUZTIETAN KOHERENTZIAZ INTEGRATU DAITEZEN SUSTATZEA.

Bigarren ardatz estrategiko honen helburua da Donostiako Udalaren politikak GGJ ikuspegiarekin koherenteak izan daitezen bultzatzea. Hau da, GGJ ikuspegia eta haren printzipio guztiak udal ekintzaren korrante nagusiaren parte izan daitezen sustatzea. Koordinaziotik harago, helburu komunak onartzeko eta arloen artean sinergiak sortzeko bidean aurrera egin nahi dugu.

Zehazkiago, Plan honetan bi bide identifikatzen ditugu politiken koherentzia aurrera egiteko: batetik, lankidetzaren indartzea, baliabideak emanez (zentzu zabalean); eta, bestetik, ekintzak egitea, jakiteko zer ari den egiten beste politika batzuetan GGJ ikuspegiari dagokionez eta zer ezagutza espezifiko behar diren ikuspegi hori garatzeko, eta politiken koherentziaren garapenean jardunbide egokiak eta esperientzia metatua sortzeko.

Ardatz honetan funtsezkoak dira lankidetzaren arloko taldearen lana, Udalaren borondate politikoa, hainbat atalen inplikazioa eta Lankidetzaren Kontseiluaren eta politiken koherentziarako taldearen zeregina, konpromiso horien aurrerapenaren auditore gisa.

Ardatz estrategikoko adierazleak:

- Donostiako Udalak lankidetzaren politika finkatuta du, garatzeko behar beste baliabideekin.
- GGJ ikuspegia eta Plan honen printzipioak Udalaren gainerako politiketan integratzeko bidean aurrera egiten ari da.
- Plan hau amaitutakoan lana bideratu dezaketen zenbait esperientzia daude.

2.1 Ekintza lerroa

Donostiako Udalak lankidetzaren politikekin duen aurrekontu konpromisoa indartzea.

Politiken koherentziaz ari garenean, lehen apustu bat da lankidetzaren politika indartsu bat izatea, garatzeko behar beste baliabiderek. Badaude gai hori jasotzen duten tresnak, hala nola 2030 Agendako 17. GJH, edo, testuinguru hurbilagoan, Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Euskal Legearen bigarren xedapen gehigarria.

Alde horretatik, kontuan hartuta gaur egun bizi dugun krisi egoera globala, zeinak, zalantzarik gabe, datozen urteetan eragin zuzena izango duen toki administrazioen aurrekontu orokorretan, lehen ekintza lerro honetan Udalaren konpromisoa jasotzen dugu, lankidetzaren politiketarako aurrekontuari dagokionez. Konpromisoa hiru zentzutan.

Lehenik eta behin, 2020an politika honetarako esleitutako aurrekontua gutxienez mantentzea, Planaren indarraldiko lau urteetarako, eta aurrekontuak funtsezko aldaketarik ez jasatea, betiere politika honek Udalaren aurrekontu bateratu orokorraren gainean duen ehunekoa txikitzen ez bada.

Bigarrenik, aurrekontu bateratuaren gaineko ehunekoa pixkanaka handitzen saiatzea, % 0,7ra iritsi arte.

Eta hirugarrenik, informazioa ematea eta gardentasunez jokatzeko, urtero sektoreko erakundeekin aurrekontu esparruari buruzko informazioa partekatuz (diru kopuruak esleitzeko barne prozedurari buruzkoa eta Plan honetan jasotako konpromisoak betetzeko aurrerapenei buruzkoa).

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
2.1.1. Udalaren lankidetzaren politiketikiko aurrekontu konpromisoari, gutxienez, eustea.	<ul style="list-style-type: none"> - Onartutako urteko aurrekontua - Aurrekontu bateratu osotik lankidetzara bideratutako ehunekoa - Lankidetzako urteko plan operatiboa eta aurrekontuaren banaketa 				
2.1.2. % 0,7a lortzeko bidean aurrera egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Planaren indarraldiko urteetarako aurrekontu estimazioa - Lankidetzako urteko plan operatiboak eta aurrekontuaren banaketa - Plan honen garapenaren urteko jarraipen txostenak 				
2.1.3. Gardentasuna eta informazioaren eskurgarritasuna bermatzeko neurriak hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Kontseiluaren urteko informazio bilkurak - Webgunean aurrekontuari buruz argitaratutako informazioa - Urteko oroitidazkiak eta jarraipen txostenak 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak eta politikariak 					

2.2 Ekintza Ierroa

Kudeaketaren informazio, gardentasun, kalitate eta etengabeko hobekuntzaren printzipioei jarraituko dien lankidetzaren politika garatzea.

Udalaren lankidetzaren politika garatzeko funtsezkoa da tresna eta prozedura egokiak izatea, politika horren kudeaketak besteak beste gardentasun eta kalitate printzipioei jarraitu diezaien. Horrela, Udalaren lankidetzaren politikaren zeregina markatzen duten gaiak dira sektoreko erakundeekin partekatutako prozedura argiak bermatzea, politikaren kudeaketari buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera bermatzea eta hobetzeko proposamenak identifikatzea.

Plan honek gai horiek guztiak indartzea du helburu, Ataleko lantalde teknikoa nahiz informazio, jarraipen eta ebaluazio prozedurak indartuz.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
2.2.1. Lankidetzaren garapenari buruzko jarraipen oroitidazkiak egin eta webgunean jartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako urteko oroitidazkiak - Lankidetzaren Kontseiluari aurkeztutako oroitidazkiak - Webgunean jarritako oroitidazkiak 	2021	2022	2023	2024
2.2.2. Webgunea eta sare sozialak eguneratuta edukitzea, Udalaren lankidetzaren politikarako garrantzitsua den informazio guztiarekin.	<ul style="list-style-type: none"> - Deialdiei eta prozedurei buruzko dokumentazio garrantzitsua, webgunean dagoena - Webgunea etengabe eguneratzea - Euskal lankidetzaren publikoaren ataria elikatzea 	2021	2022	2023	2024
2.2.3. Kalitate proiektuen jarraipen sistema bat eduki.	<ul style="list-style-type: none"> - Bilerak erakundeekin eta kontrako alderdiekin - Erakundeek egindako eskarietatik, erantzundakoak - Teknikariek lankidetzaren proiektuetara egindako bidaia kopurua - Teknikarien parte hartzea finantzatutako GEH ekimenean 	2021	2022	2023	2024
2.2.4. Teknikari taldearen gaitasunak indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Talde teknikoa urtean gutxienez 3 prestakuntza gune edo ikastarotara joatea - Barne lana berrantolatzea, Plan honetako jarduerakiko koherentziari eutsiz 	2021	2022	2023	2024
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak eta politikariak 					

2.3 Ekintza Ierroa

Politiken eta Donostiako Udalaren GGJ ikuspegiaren arteko koherentzia bultzatzea. DIAGNOSTIKOA EGITEA.

Aurreko Planean egiteke gelditu zen erronketako bat da beste atal batzuk inplikatzeko dituzten ekintzak garatzea, politiken koherentziari lotuta. Lankidetzat Atalak badaki administrazio publiko gisa beharrezkoa dela GGJ bultzatzea Udalaren ekintza ororen korrante nagusi gisa, baina ez da bide erraza, eta garatzeko espazioak eta prozedurak sortzeko lan egin behar da.

Planaren ekintza Ierro honetan, funtsezko lehen urrats bat jasotzen dugu politiken koherentzian aurrera egin ahal izateko: zer egiten ari den jakitea, ikuspegi honi dagokionez egungo egoeraren diagnostikoa egitea, koherentzia bultzatzeko neurriak ezarri ahal izateko. Dena jorratzeko zailtasunaz jabetuta, proposatzen duguna da lan esparru espezifiko batzuk hautatzea, hortik abiatuta jardunbide egokiak sortzeko eta bidea egiteko.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
2.3.1. Udalaren hiru politika espezifikoren (arloan sozial, ekologiko eta ekonomikoko politikak) eta GGJ ikuspegiaren arteko koherentzia maila aztertzea, galdera sorta zehatz bat prestatuta.	<ul style="list-style-type: none"> - Lan saioak Lankidetzaren Kontseiluarekin, adierazle sistema zehazteko - Bilerak tartean dauden atalekin - Egindako txostenak - Prozesuaren jarraipena eta informazioa 				
2.3.2. Udal atalek nazioarteko elkartasunarekin lotuta egiten dituzten jardueren berri izatea.	<ul style="list-style-type: none"> - Identifikatutako lankidetzaren eta GEH ekimeneren kopurua - Ekimen horiek Plan honekin duten loturaren azterketa 				
2.3.3. Dirulaguntza lerro desberdinen bidez finantzatutako proiektuetan lan egiten duten erakundearen errealitateak eta eskaeren berri izatea.	<ul style="list-style-type: none"> - Gutxienez 2 bilera presentzial edo online urtean, Udaleko ordezkari politikoak, teknikarien eta babestutako Hegoaldeko eta Iparraldeko erakundearen artean - Informazio komunikazioen eta/edo laguntza instituzionaleko komunikazioen kopurua 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak eta politikariak <p>Kontrastatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Kontseilua 					

2.4 Ekintza Ierroa

Politiken eta Donostiako Udalaren GGJ ikuspegiaren arteko koherentzia bultzatzea. JAKITEA.

Politiken koherentzian sakontzeko beste funtsezko elementuetako bat da horretan bideratzeko tresna eta ezagutza zehatzak izatea. Ildo honetan, ekintza lerro honek bi gai landu nahi ditu: batetik, Udalaren atal gehiagotan GGJ ikuspegiari eta politiken koherentziari buruzko ezagutza zabaltzea, eta, bestetik, beste administrazio publiko batzuek ikuspegi hori zeharkako bihurtzeko egindako esperientziei buruzko ezagutza zabaltzea. Horrela, udalerrian esperientzia zehatzak garatzeko oinarri handiagoa sortzea espero da.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
2.4.1. Berriazko gaien buruzko aurkezpen, presuntakuntza edo espazioen bidez, Udaleko langileek GGJ ikuspegiari eta Plan honen printzipioei buruz dituzten ezagutzak hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Egindako prestakuntza saioak edo truke espazioak (gutxienez 3, 2.3.1 jardueran inplikaturako atalekin) - Tartean sartutako pertsona eta atal kopurua - Prozesuaren balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa 				
2.4.2. Gutxienez, truke espazio bat antolatzea beste udalerrri edo administrazio batzuekin, politiken koherentziarako estrategiak garatzeko beste esperientzia batzuk ezagutzeko.	<ul style="list-style-type: none"> - Garatutako truke espazioa - Haren balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa - Identifikaturako jardunbide egokien edo erreferentziatzko esperientzien kopurua 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak eta politikariak • Beste atal batzuetako teknikariak 					

2.5 Ekintza lerroa

Politiken eta Donostiako Udalaren GGJ ikuspegiaren arteko koherentzia bultzatzea. EGITEA.

En esta última línea recogemos la voluntad de poner en práctica esta transversalización del enfoque Azken ildo honetan, ekintza zehatzen bidez GGJ ikuspegia zeharkako bihurtzeko borondatea jasotzen dugu. Politiken koherentzian aurrera egitea ahalbidetuko duten ekintzak, modu errealista, ordenatu eta iraunkorrean. Horretarako, oso garrantzitsua da aurreko bi ekintza lerroetan egindako lana, bai eta Udal arloekin lan egiteko espazioak sortzea ere, bereziki zeharkakotze lanari lotuta. Bestalde, ekintza piloturen bat abian jartzeaz gain, interesgarritzat jotzen da Lankidetzat Atalak hainbat urtez bultzatu dituen bi lan ardatzi jarraipena ematea: batetik, beste Udal arlo batzuekin batera GEH jarduerak antolatzea, eta, bestetik, Udalean kontsumo kontzientea eta arduratsua sustatzea, besteak beste banka etikoaren bidez edo klausula sozialak aplikatuz.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
2.5.1. Adierazleen diagnostikoaren arabera, gutxienez ekintza bat hautatzea, aztertutako ataletako batekin egiteko.	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza pilotua diseinatuta eta eginda - Ekintza hau ezartzeko prozesuaren balorazioa 				
2.5.2. GEH ekintzak antolatzea beste atal batzuekin batera (adibidez, Kultura, Kultur Aniztasuna edo Berdintasuna).	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean gutxienez 2 ekintza antolatzea - Horien balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa - Batera antolatutako esperientzia arrakastatsuetatik ateratako ikaskuntzak 				
2.5.3. Udalaren barruan tresna zehatzen garapena eta jarraipena bultzatzea, esaterako, klausula sozialak eta kontsumo kontziente eta arduratsua	<ul style="list-style-type: none"> - Tresna horiek bultzatzeko ekintzen kopurua 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzat Ataleko teknikariak eta politikariak • Beste atal batzuetako teknikariak 					

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA

ELKARTASUNAREN ETA GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAREN ESPARRUKO ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA ALIANTZA LOKALAK ETA GLOBALAK INDARTZEA.

Azken ardatz honetan, koordinazioarekin eta beste batzuekin egitearekin lotutako ekintzak jaso dira. Lan hori indartu nahi da, beste eragile batzuen artean, Lankidetzaren Kontseiluarekin, Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin eta beste administrazio eta sare lokal eta global batzuekin. Halaber, funtsezkotzat jotzen da koordinazioa eta sinergiak bultzatzea sektoreko erakundeen artean, Iparraldean nahiz Hegoaldean, eta sektorearen eta beste kolektibo eraldatzaile batzuen artean. Bultzada hori eskurik ez sartzeko borondatearekin eta lehendik dauden espazio propioak errespetatuz eman nahi da. Gure ustez, Udalak zeregin oso zehatza izan dezake, topaketa horietan aurrera egitea ardatz hartuta, baina betiere onartuta lan nagusia sektoreari berari dagokiola.

Ardatz estrategikoko adierazleak:

- Lankidetzaren Kontseilu indartsu bat dugu, solaskide izateko gaitasuna eta udal politikan eragin dituen.
- Lankidetzaren sektorea (bereziki GGKEak, administrazio publikoak eta tradizionalak ez diren lankidetzako beste eragile batzuk) koordinatzeko espazioak bultzatu dira.
- Koordinaziorako eta sinergiak sortzeko sare eta plataformetan parte hartzen da.

3.1 Ekintza lerroa

Lankidetzaren Kontseilua indartzea, Donostiako lankidetzaren erakundeek udal politikaren parte hartzeko organo nagusi gisa.

Donostiako Lankidetzaren Kontseilua erreferentziazko partaidetza gunea da udal politikak garatzeko. Kontseiluaren lana funtsezkotzat jotzen da, proposamenak sortzeko, udal politikaren garapenaren jarraipena egiteko eta nazioarteko elkartasunarekin lotutako hainbat ardatzetan ekarpenak egiteko duen gaitasunagatik. Plan honen bidez, parte hartzeko gune hori indartzen jarraitu nahi da.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
3.1.1. Kontseiluaren urteko lan planak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urteko lan planak - Plan horien gauzatzearen jakitun egoeta 				
3.1.2. Kontseiluko partaidetza kalitatezkoa izateko baldintza egokiak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean gutxienez 4 bilera egitea eta hainbat dinamika erabiltzea - Kontseiluaren funtzionamenduaren urteko balorazioa - Gai zerrendak eta aktak 				
3.1.3. Kontseiluko lantalde espezifikoekin hitz egiteko espazioak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Topaketa kopurua, haute-mandako beharren arabera - Horien balorazioa 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak eta politikariak <p>Kontrastatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Kontseilua 					

3.2 Ekintza Ierroa

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen lana indartzen jarraitzea, bereziki Donostian duen egoitzan.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen daude sektoreko erakunde gehienak, baita Donostiako lankide-tzarenak ere. Duela urte batzuetatik hona, Udalak erakunde hori indartzearen aldeko apustua egin du, aintzat hartuta espazio horren potentzialtasuna, bai sinergiak sortzeko, bai hitz egiteko eta eragiteko espazio gisa. Plan honen bidez, babes horri eutsi nahi zaio.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
3.2.1. Koordinakundearen Donostiako egoitzari babesa ematea.	<ul style="list-style-type: none">- Onartutako urteko aurre-kontua- Lankidetza hitzarmenaren garapenaren jarraipena				
3.2.2. Udalaren eta Koordinakundearen arteko elkarrizketarako guneak sortzea.	<ul style="list-style-type: none">- Gutxienez bilera 1 urtean eta/edo izandako komunikazioa- Elkarrekin antolatutako jarduerak				
Arduradunak: <ul style="list-style-type: none">• Lankidetza Ataleko teknikariak eta politikariak Kontrastatzea: <ul style="list-style-type: none">• Euskadiko GGKEen Koordinakundea					

3.3 Ekintza lerroa

Koordinazioa hobetzea eta sinergiak sortzea beste administrazio eta eragile batzuekin.

Gurea bezalako testuinguru batean, non hainbat administrazioek garatzen dituzten lankidetzaren eta GEH politikak, beharrezkoa da informazioa trukitzea, aniztasuna errespetatuz koordinatzea eta sinergiak sortzea identifikatzen diren gaietan. Donostiako Udalak, Plan honen esparruan, interesgarritzat jotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin harremana indartzea. Azken kasu horretan, (H)abian estrategiarako lantaldea gune bereziki interesgarritzat jotzen da, nahiz eta bakarra ez izan.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
3.3.1. Erakundeen arteko hainbat koordinazio espaziotan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean gutxienez 2 bileratan eta gunetan parte hartzea - Horietan izandako parte hartzearen balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa 				
3.3.2. Eskualdeko edo munduko beste foro eta sare batzuetako partaidetza aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Identifikatutako sare kopurua - Horietako parte hartzearen interesaren balorazioa 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren Ataleko teknikariak eta politikariak 					

3.4 Ekintza lerroa

Sektoreko erakundeen arteko ezagutza trukea eta aliantzak indartzea, bai eta beste eragile batzuekin duten lotura ere, hala nola gizarte mugimenduekin, hezkuntzaren esparruarekin eta ekonomia sozial eta solidarioarekin.

Udalak beharrezkotzat jotzen du koordinaziorako, trukerako eta sinergiak sortzeko espazioak sortzea, gutxienez bi zentzutan: sektoreko erakundeen artean eta erakunde horien eta lankidetzako beste eragile ez tradizional batzuen artean. Horretarako, dirulaguntzen lerroan, partzuergo horiek indartu nahi izan dira. Eta Plan honetan apustu hori zabaltzeko nahi da, trukerako eta hausnarketarako espazioak sortuz, bai Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen artean, bai gizarte eraldaketarako eragile estratejikoekin, hala nola gizarte mugimenduak, hezkuntzaren esparrua eta ekonomia sozial eta solidarioko esperientziak. Hegoalde globaleko garapen eta hezkuntza prozesuak tokiko (Donostia) garapen eta hezkuntza prozesuekin lotuko dituzten espazioak sortu nahi dira, gizartean ikusgai jartzeko, elkarrengandik ikasteko eta gizartean eraldaketa handiagoa lortzeko.

Proposatutako ekintzak	Adierazleak	Kronograma			
		2021	2022	2023	2024
3.4.1. Erakundeen partzuergo lana babesten jarraitzea dirulaguntza lerroetan.	<ul style="list-style-type: none"> - Proposamenetarako baremoa ezartzeko irizpideak - Babestutako partzuergo kopurua 				
3.4.2. Plan honen printzipioei eta/edo Donostiako elkartasun agendari lotutako gai espezifikoiei buruzko truke eta hausnarketa espazioak sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Garatutako ekintza kopurua - Gune horietako parte hartzearen balorazioa 				
<p>Arduradunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzat Ataleko teknikariak eta politikariak 					



JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Azken atal honetan, Planaren jarraipen eta ebaluazio sistemaren funtsezko elementuak jaso ditugu.

Plana onartzea

Plan hau onartzeko prozesuan, bereziki garrantzitsuak diren bi fase egongo dira. Batetik, Lankidetzaren Kontseiluari aurkeztea, Donostiako elkartasunaren sektorearen ikuspegia eta posizionamendua jasotzeko erreferentziazko gunea den aldetik. Eta bestetik, dagokion Gobernu Batzarrean azken dokumentua onartzea. Behin onartuta, dokumentuaren zabalkundea egingo da, bai Udalaren barruan, ataletan eta zerbitzuetan, bai herritar guztien artean, webgunearen bidez.

Urteko plan operatiboak

Plan honetan zehaztutako lerro estrategikoei lau urterako konpromiso eta lan esparrua ezartzen dute, eta urtero zehaztu eta errealitatera egokitu behar da. Planaren gauzapenak, testuinguruaren aldaketek eta hautemandako behar berriek presente egon behar dute urteko plan operatiboak formulatzeko orduan. Planak tresna bizia eta malguak izan behar du.

Urtero, ekintza lerroetatik zeregin zehatzak aterako dira, eta horietako bakoitzean, erantzukizunak, kronograma eta baliabideak zehaztu. Gainera, betetze maila neurtzeko adierazle sistema doitu da.

Urteko lehen hiruhilekoan, dagokion urteko plan operatiboa egiteaz gain, jarraipen oroitidazkia idatziko da, egindako lanaren, aurreikusitako ekintzen betetze mailaren eta aurrekontuaren gauzatzearen berri emateko.

Bi dokumentu horiek, bai urteko plan operatiboa, bai aurreko urteko oroitidazkia, urteko lehen Lankidetzaren Kontseiluan aurkeztuko dira, eta informazioa eskuragarri dagoela bermatuko da eta espazio horretan plana hobeto garatzeko egiten diren ekarpenak jasoko dira.

Amaierako ebaluazioa

Ebaluazioa ezinbestekoa da lankidetzaren lana etengabe hobetzeko; ikaskuntza prozesu gisa hartu behar da, eta ohiko praktika gisa txertatu proiektuak edo, kasu honetan, plan estrategikoak gauzatzean. Gainera, ebaluazioak funtzio garrantzitsua betetzen du gardentasunari eta gizartearen aurrean kontuak emateari dagokienez; horregatik, ezinbestekoa da ebaluazioen emaitzak zabaltea, esku hartzen duten eragileen artean eta, oro har, iritzi publikoaren aurrean.

Plan honetan, amaierako kanpo ebaluazioa egitea aurreikusten da, 2024ko azken hiruhilekoan. Ebaluazio hori, zalantzarik gabe, tresna baliagarria izango da ikaskuntzak hurrengo Planean txertatzeko. Ebaluazio txostena Lankidetzaren Kontseiluan aurkeztuko da, eta Atalaren webgunearen bidez zabalduko da.

